


MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**



**José Luis
Ansorena
Miranda**



29

MANUEL LEKUONA Sarria
Premio MANUEL LEKUONA



2011



**EUSKO
IKASKUNTZA**

**José Luis
Ansorena
Miranda**

Egilea: Jose Ignazio Ansorena



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

ANSORENA, Jose Ignazio

José Luis Ansorena Miranda / Jose Ignazio Ansorena. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012. – 165 or. : ir. ; 21 cm. – (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona ; 29). – Testu elebiduna euskaraz eta espainolez. – Manuel Lekuona Saria 2011.

ISBN: 978-84-8419-235-0

1. José Luis Ansorena Miranda – biografia 2. Bibliografia – José Luis Ansorena Miranda
I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. Tit.

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Ikaskuntza, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Miramar Jauregia – Miraconcha, 48 – 20007 Donostia

Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

ISBN: 978-84-8419-235-0

LG: SS 897-2012

Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa: Michelena artes gráficas

Datu biografikoak	5
Datos biográficos	59
Une gogoangarriak	121
Momentos memorables	121
Bibliografia / Grabaketak / Partiturak	141



Semetxoaren poza

Azaroko lore maite bat

Isidro Ansorena txistulari hasi zenean ez zen ohartu lanbide honek zuen eskasia batez. Besteek dantza egin bitartean danbolinak jo egin behar du. Dantzazalea izaki, lehenengo urteetan nahikoa poz sentitu arazten zion bere doinuaren erritmoan Hernaniko gazteak *Ezkiaga Ibilekuan* dantzan ikusteak. Haien artean neska berezi bat, *Conchita* Miranda, somatu zuen arte. Hura igandeetako dantzaldira joaten hasi zenean Isidrok dantzaren behar fisikoa ere sentitu zuen, begiak beste ezer dantzatu ezin bazuen ere. Dantza ariketa horietan zailduko zen agian Isidroren begirada, sarkor eta esanguratsuago ezina bere azken egun arte.

Teodoro Erauskin ondoko txistulari potzoloari baimena eskatu eta, txistu eta danbolina bazterrean utzita, behin baino gehiagotan jaitsi zen *Azaroko lore maite bat*¹ zegoen korroraio. Harengandik ahalik eta hurbilen, batera erritmoa sentitzen, bihotzaren emozioak gainezka egiten zion. San Joan bezperako *Dantza sokan* ere, dantzari hartu zuen parte Isidrok eta Conchita aukeratu zuen neska lagun. Ohorezko Kontrapasa dantzatu zion, agian ordurako berak jarritako hitzak gogoan:

1. *Azaroko lore maite bat* Isidro Ansorenak Concha Mirandaren gorazarrez, azaroan jaiotakoa baitzen, idatzitako kontrapas bat da. Bere txistu metodoaren bigarren liburuan agertzen da. Behin baino gehiagotan jo nuen, ordurako amona hilda, Kontserbatorioko gelan, berak bigarren boza egiten zidalarik. Ez berak ezta nik ere ez genuen aipatzen, baina masailetik behera malkotxo bat erortzen zitzaion horrelakoetan.

Maitea, pozez agurtzen det zure etorrera,
nere bihotza pilpil aurkitzen da ikustean.
Zoriontsu eta maiteki dantzatuko det
agurrik goxo eta ederrena.
Muriska ta lau arinak
dira bihotzez zuretzat eginak.
Nere oinak nahi lukete
dantzik ederrena ongi bete.
Zuretzat, nere maite polit paregabea,
su ta gar, maitasunez, natorkizu eskeintzera².

Bi familiak berehala *konformatu ziraden*, garaiko esamoldea erabiliz, eta ezkondu, 1917ko apirilaren 24ean, San Juan Bataiatzailearen Parrokian. Haurrak hironaka etorri ziren mundura. Hiru neska: Ana Mari, Martina eta Consuelo. Hiru mutil: Iñaki, Joskin eta Jose Luis, 1928ean jaioa. Eta beste hiru neska: Mari Tere, Pepi eta Amparo.

Guraso bien orotzapen ezin samurragoa dute oraindik, hainbeste urteren buruan, semealabek. Gogoratzen dute Isidro, aita, etxera iristerakoan denek sentitzen zuten poza, baita, denok agurtu ondoren, eguerdietan aurrenik botatzen zuen oihua ere: “*Jarri mahaia*”, gosetuta baitzetorren lanetik. Gizon lanpetua izanik –gerra ondorengo garai gogor haietan bederatzi semealabetako familia mantendu behar– etxera ailegatzean beti omen zuen irribarre gozoa bertan aurkitzen zituen guztientzat eta bereziki emaztearentzat. Isidorentzat familia ondasunik handiena baitzen. Egoera larrietan sendotasuna izaten lagundu ziona.

Bakarrik kantatzen entzuten zaituztet

Ansorena Mirandatarrei Hernani kaleko etxe hartako bigarren solairuan bizi zen Teresa Merino emakume adinduak esaten

2. Zehaztasunik gabe, askok *Agurra* edo *Auresku* deitzen duten *Ohorezko Kontrapasaren* doinu ezagunenaren gainean, Isidro Ansorenak jarritako hitzak. Urte askotxoren buruan, Andra Mari Abesbatzaren Zilarrezko Eztaietarako, 1991. ean, Jose Luisek abesbatzarako harmonizatu zuen. Eta geroago neronek moldaketa osatu txistulari taldearen laguntzaz jotzeko. Ia familia osoa tartean.

zien: *Zuen etxean hainbeste zarete eta inoiz ez da garrairsirik txikiena entzuten. Bakarrik kantatzen eta musika egiten entzuten zaitzuten.*

Familia hartan politikak ez zuen leku handirik. Isidro euskaltzalea zen eta abertzalea, baina inoiz ez zen nabarmendu, besteak beste, bere lanpostuak denon zerbitzuan izatea eskatzen ziola uste zuelako. Giroa gerrarekin trakestu zen. Isidrori zigorra jarri zion Udalak salaketa ezkutu batengatik³, eta horrek arrastoa utzi zuen. Jose Luisek eta beste anaiarrebek ikusi zituzten gurasoak etxean *ikurrina* erretzen, inork harrapatuko zuen beldurrez. Isidrok zuen ehiztari eskopeta ere agintari nazionalei eman behar izan zien. Eta euren hizkuntza, euskara, ordurarte etxeko hizketa modu normala, bakarrik senarremazteen arteko elkarrizketetarako geratu zen, isil-misilka gainera. Horregatik anaiarreben artean halako erreten bat gertatu zen, zaharrenek euskaraz ikasi zuten eta gazteenek ez hainbeste, horretan kaleko eta eskolako giroak ere ez zuelako laguntzen. Jose Luis azken hauetakoa zen. Piskana, umetan nabaritu ez arren, urteak aurrera joan ahala, marka hori zauri bihurtuko zitzaion.

Maila sozial eta ekonomiko apaleko familia zen. Isidrok Udaleko langile arrunt baten soldata zuen eta, horrez gainera, txistulari gisan sos batzuk biltzen zituen. Etxeko guztiak aurrera ateratzeko bere ahaleginak ez ziren gelditzen: txistu eta danbolinak egin, bere aita zenaren zaletasunari jarraituz. Txistu eskolak ere ematen zituen etxean. Ikasleen artean pertsona famatuak izan zituen. Esaterako, Nikolas Ormaetxea, *Orix*e, euskal idazle handiak gogo bizia zuen txistua jotzen ikasteko. Eskola gutxi batzuk eman ondoren, Isidrok ezetz esan behar izan zion, doairik ez zuelako. Eta atabala jotzera bideratu zuen. Argazki eder bat bada, non Txomin San Sebastian, Astigarragako txistularia eta Isidroren adiskide maitea, azken honekin eta *Orix*ekin batera jotzen ari

3. Antonio Pagoaga Alkatearen *ofizioak*, 1938ko ekainaren 18an sinatua, honela zioen: “*Tengo el gusto de poner en su conocimiento que el Ayuntamiento Pleno en sesión de 14 de junio ha acordado declarar a V. suspenso de empleo y sueldo por tres meses...*”. Azkenean, Isidroren kexua zela eta, zigorra altxatu egin zitzaion. Alkateak eskaini zion salaketa jartzailearen berri ematea. Baina ez zuen jakin nahi izan, inoren aurkako bame gorrotorik ez elikatzearren.

diren bazkalondo batean. Ignazio Lojendio⁴, Donostiako familia aberatsenetakoa ere ikasle izan zuen. Semealabentzat oso preziatuak izaten ziren txokolatinak eramaten zituen honek eskolak hartzera joatean.

Joxe Mendizabal Erreterriako Udaleko txistulari oiartzuarrak kontatua dakit umetan zer gertatu zitzaion. Isidroren etxera hasi omen zen joaten txistua jotzen ikastera. Eta txukun ari zen, baina nota askotan *gezurra* ateratzen zitzaion, *potoa* alegia. Behin kalean Joxeren aitak eta Isidrok elkarrekin topo egin zuten:

- Kaixo, Isidro, nola dabil gure mutila?
- Ongi ari da, oraindik gezur asko botatzen baditu ere.
- Hara! Utzi nire kontu.

Eta etxera joandakoan, ezer baino lehenago aitak egundoko zaplastekoa eman omen zion semeari, Isidrori gezurrak esateagatik. Semeak zein gezur klase zen adierazi ahal izan zionean, iada belarrondokoa kentzeko modurik ez zegoen. Jose Luisek, ordea, inoiz ez zuen aitaren zaplastekorik jaso. Ezta beste anaiarrebek ere.

Danborradetarako danborrak ere egin zituen Isidrok. Deigarriak ziren hark bidaltzen zituen fakturak, hain zen zorrotza kontuak egiten. Maiz esaten zioten gutxi kobratzen zuela, baina berak justiziaren zentzu bipila zuen eta horretan tranparik txikiena ere ez zuen onartzen. Inoiz ez zuen diru goserik izan.

4. Ignacio M^a Lojendioren familia ospe handikoa zen Donostian. Oso aberatsak izateaz gainera, eskuin kristau, baina euskaltzalekoak ziren. Anaia bat, Luis Maria, apaiz beneditarra “Valle de los Caídos” delakoaren Abade mitraduna izan zen urte askotan. Eta beste anaia bat, Juan Pablo, Espainiako enbaxadore Cuban, non San Sebastian egun batean, bertako telebistan Fidel Castroren hitzaldia eten arazi zuen eta honekin eztabaida gogorra sortu Espainiaren aurka ari zelako. Euskaraz zoragarri egiten zuten eta Jose Mari, beste anaia, Euskaltzaindiko buru izatera iritsi zen gerra ondoren. Ignazio –geroago Sevillara joana Zuzenbide Zibileko Katedradun eta han geratua ia bizitza osoan– Donostiako *Schola Cantorum* abesbatzako sortzaileetakoa izan zen eta arrebak bertan aritu ziren kantari.

Muxu goxo bat bonbardaketaren azpian

Bestelako goseak bai, ordea. Musika gosea, esaterako, bazen etxe hartan. Isidroko uste sendoa zuen: pertsona guztiei gutxienez hiru urtetako musika hezkuntza –solfeoa eta tresna baten hastapenak– eskaini behar zitzaizela. Hura oinarrizko heziketa zela iruditzen zitzaion. Horregatik semealaba guztiak Kontserbatoriora bidali zituen eta berak prestatzen zizkien doinu ederren moldaketak elkarrekin kanta arazten zien. Bramsen 15. vals ezagunaren gainean hau egokitu zuen hiru ahotsetan hiru alaba zaharrenentzat:

*Muxu goxo bat
guretzat opa dezu,
baina maitasunezkoa dan
jakin nahirik gaituzu,
bihozberak garenez gu,
samurtasunaren zale,
maiteño zoragarriaren alde.*

Bonbolontena sehaska abesti ederra ere alaba gazteenei hiru ahotsetan irakatsi eta hauek elkarte gastronomikoetara joaten ziren, bazkalondoetan abestera, Amparo gazteenak metalezko hiruangelukoa jotzen zuelarik. Jose Luis ere Kontserbatoriora bidali zuen, 1936.ean, agian urte gaizto horrek zerikusia izango du bere ikasbide musikalaren etengabeko zapuzketarekin. Han izan zituen irakasle Robustiano de Lucas, solfeoaren hasieran; Luis Urteaga, solfeoarekin batera harmonia eta konposiziorako gogoak pizten, eta Beltran Pagola pianoan.

Jolasean aritzeko gosea ere bazuen Jose Luis haurrak. Behin Kontxako hondartzan jolasean ari zirela, Iñaki anaia eta hainbat lagunekin batera, nonbait ohartarazteko bozina entzun ez eta konturatzeko gerra hegazkinak gainean zituzten. Lasterka joan ziren *Club Náutico* aldera, arroketa, han babestuko zirelakoan eta ikusi zuten hegazkin batek nola bota zuen bomba handi bat Hotel Londreskoaren parean. Halako batean, lagunak arroketa utzirik, korrika abiatu zen etxe aldera eta atarian pistola eskuan zegoen Joto milizianoak orruka egin zion: *Zer habil hemen, mukitsu halakoa? Segi satora!* Horrela egin eta azpiko zulo hartan sartzean beste anaiarriba gehienekin batera ama ikusi zuen aurrenik, negarrez bere semeengatik oso larrituta: *Baina non hintzen, seme?* Eta muxu goxo bat eman zion kopetan.

Pastel inglés, parece mierda y lo es

Sabeleko gose garaiak ziren Jose Luisen haurtzarokoak. Gogoan du ama negarrez ikusi izana, denontzako nahi bezalako janariak ezin eros zitzakeelako. Ogia eta janari gehienak arrazionatuta zeuden. Horregatik etxeko guztiei goizez banatzen zien amak zegokien ogi pusketeta. Eta hurrek normalean berehala jaten zuten. Iñaki anaiak esaten duenez, “*bestela anaiarrebaren batek jateko arriskua baitzegoen*”. Eta familian denak ziren jatun onak. Isidrori lantokiko lagun batek noiz edo noiz txorizo xerra batzuk, eta gazta pusketak, erregalatzen zizkion eta altxor moduan ekartzen zituen etxera. Denon artean jaten zituzten benetako debozioz.

Batzuetan Hernanira joaten ziren, familiaren *Leokadisti* etxeko baratetik babarrun edo barazki batzuk ekartzera. Amak patrikera moduko poltsa bereziak josi zituen, barruko arroparen azpian ezkutatuta eramateko. Han ekartzen zituzten potaje maitatua egiteko erabiliko ziren lekaleak. Bazuen arriskua. Behin Isidro bera harrapatu zuten Amaran, tranbatiak jaistean, eta, janaria kentzeaz gainera, isuna jarri zioten. Beste batean Joskin anaia Hernaniko autobusean zetorrela, Abastos saileko ikuskatzaileek Aiete parean hura gelditu eta miatzera ziohazela nabaritzean, leihotik behera bota zuen babarrun zakutxo. Trantzea pasa ondoren, hurrengo geltokian jaitsi, atzera egin, sasien artean zakutxoa bilatu eta oinez itzuli zen etxera.

Agian horregatik du Jose Luisek gogoan lekaleak eta berdurak ez zituela maite. Baina inork ez du gogoan inoiz platerean kondarrak utzi zuenik. Jaki bakarra ezin zuen irentsi: sardinak. Kexuan ibiltzen zen bizarrak zituztela eta.

Etxean eskasia zegoen arren, ama Conchak fundamentua jartzen zuen. Oso sukaldari onaz gainera, gozogile aparta omen zen. Hark egindako kokozko pastak, katu mihiak, almendrazko galletak... zoragarriak ziren. Baina beti medikuentzat edo *kunplitu* beharreko jendearentzat izaten ziren. Horrelakorik prestatu beharra egokitzen zen gutxietan, etxekoak han ibiltzen ziren apurrak jaten edo eltzeko kondarrak miliskatzen.

Arreba Consueloren ustez, apika horregatik hasiko zen Jose Luis Kaputxinoetara joaten eta, konturatu gabe, etorkizuna

erabaki. Banatzen zizkieten janariak izan zitezkeen bertara hurbiltzeko arrazoia. Anaia Iñakik konfirmatuta badakigu kaputxinoek bertako gaztelekura joaten zirenei sagaratu beharreko formak prestatzean geratzen ziren *ebakinak* banatzen zizkietela. Baina Consuelok gehitu du beste datu interesgarria: ogitarteko oso onak ere ematen zizkieten, txorizozkoak, txokolatetzkoak, arrautz opilezkoak... Benetako luxua garai horretan. Anaiarrebek galdera egiten omen zioten etxeraterakoan: zer, nolako ogitartekoa gaur? Eta inbidia galanta pasatzen omen zuten horren kontura.

Bestetik, Kaputxinoen elizan lantzean behin funtzio oso bereziak izaten ziren. Handiena noski Lurdesko Ama Birjinaren Bederatziurrena, Eliza honen adokazioan baitago. Jendez gainezka jartzen zen eliza eta jarleku guztiak betetzen zirenean ba omen zituzten bazter batean prestatuta aulki tolesgarriak. Monagoak horren zain egoten ziren eta inor aulki bila zebilela ikustean, berehala hurreratzen zioten bat, horren truke txakur txiki bat edo beste maiz erortzen zitzaielarik eskuetan. Beraiek irribarre batez jaso eta poltsikotaratzten zuten berehala. Jose Luisek, hori suertatzen zitzaionean, ez zuen denborarik galtzen, Hernani kaleko okindegira joaten zen, bere txanponaren truke emango zioten *pastel inglés* ale baten bila. “*Pastel inglés, parece mierda y lo es*” egiten zuten kanta garaiko haurtxoek. Ez zitzaien arrazoi falta, ogi, erroskila eta bezperako kondar guztien bilduma baitzen. Baina handia ere bazen eta sabela berdintzeko oso egokia.

Jose Luisek bestela gogoratzen du kaputxinoengana joate hori. Berak meza laguntzen ikasi nahi zuen eta Santa Maria elizan monago zebilen *Los Ángeles* eskolako ikaskide bati eskatu omen zion bertan hastea. Honek eraman eta, zorte onik ez, lehenengo egunean On Bernardo Unanue apaiz jenio txarrekoari laguntzea egokitu. Jose Luisek ez zituen xehe-mehe ezagutzen garai hartan meza laguntzen egin beharreko maniobra guztiak eta ur-ardo ontziak apaizari aurkeztu behar zizkionean, ez zuen eginkizuna erabat zuzen burutu. Apaiz ernegatu hark, meza amaitutakoan garraisi egin omen zion lagunari:

—Ez niri meza ondo laguntzen ez dakienik ekarri!

Hori zela eta kaputxinoetara joatea deliberatu zuen.

Konformazio ona

Kaputxinoetan, berehala mirestu zuen sakristau lanetan zebilen fraide lego batek: *Fray Donato de Torrano*, Nafarroako Sakanan den Dorrau herrikoa. Eredu imitagarria iruditu zitzaion denetarako zuen jarrera zintzoarengatik. Tolosako Frai Bernardo organo jotzailearekin ere harreman handia izan zuen, honek gidatzen baitzituen Eskolaniako haurren entsegu gehienak eta bera han zebilen ia hasieratik. Jose Luis oraindik mutil koskor bat zen eta bihurrikeriak egitea gustatu. Frai Bernardo haur kantariekin entsegu egitera prestatzen ari zen batean, harmonium zaharraren laguntza egiteko lekuan esertzera abiatu zenean, Jose Luisi aulkia kentzea otu zitzaion. Fraile gaisoak hartu zuen ipurdikoa deigarria izan zen. Hala ere, altxatu, irribarre amultsuaz begiratu eta ez zion inongo kezurik egin. Jose Luisek orduan bere kolporako pentsatu zuen: *“Ea noizbait, niri horrelakorik gertatuz gero, era berean erantzuteko gauza naizen”*.

Eskolanian, beraiekin ordu gutxiago ematen bazuen ere, zuzendari Aldazko Frai Ignazio ibiltzen zen. Gizon txistezalea eta umore handikoa, Jose Luisek hari eman zion bere burutazioen berri:

—Nik Frai Donato bezalakoa izan nahi nuke.

—Legoa? Ez, ez, legoa ez. Apaizak behar ditugu.

Jose Luisi ondo iruditu eta horretan geratu ziren. Honetan badu haur garaietatik ezaugarri ona: konformazio onekoa da.

Kaputxino haien bizimodua erakargarri gertatu zitzaion eta berarentzat horixe nahi zuen. Baina etxean esaten ez omen zen ausartzen. Lehendabiziko aldiz aipatu zuenean, Isidro aitak lasai hartzeko esan zion eta urte betez pentsa zezala erabaki sendorik hartu aurretik. Itxoin egin zuen arren, erabakia gero eta irmoagoa zen. Etxean esatea, ordea, gogor egiten zitzaion. Unanuako Frai Dionisio izan zen etxean berria emateko arduraduna. Gurasoengana joan eta besterik gabe adierazi zien semearen erabakia. Ez zuten oztoporik jarri. Baina berriro pentsatzea nahi zuten:

—Jabetzen al haiz zein latza den kaputxinoen bizimodua? Ondo pentsatu al duk?

Isidro Ansorenarentzat gogorra gertatu zen semearen erabaki hura. Berak musikarenganako maitasuna erein zuen etxean. Abesteko zaletasuna piztu zien, eta, zuzenean inor bultzatu ez bazuen ere, bazuen barruan bere ondorengoetako batek txisturako zaletasuna garatuko zuen itxaropena.

Iñakiri irakatsi zion zerbait, baina honek, hainbat talderekin –Schola Cantorum, Diputazioko Txistulari Taldea...– jo bazuen ere, ez zuen gogo handirik azaldu. Abesbatzetarako joera handiagoa zuen. Joskinek ez zuen txistua hartu ere egin, osasun arazo batzuk zirela medio. Jose Luis, aldiz, bere kasa hasia zen txistua ikasten hamar urte besterik ez zuela. Etxean zeuden txistuetatik ezpelezko batekin probatzen ibili zen eta doinu batzuk ikasi ere bai. Kaputxinoen gazteen lekuan burutzen ziren jaialdietako batean, 1940ean, hamabi urtez, publiko aurrean eskainia zuen saiotxo bat: “*Isidro Ansorena txistulari famatuaren semea entzuteko ohorea izango dugu*”. Horrela aurkeztu omen zuten. Isidrok bazuen horren berri. Orain, baina, bazihoakion aukera:

—Seme, nik itzal handia zioat apezgoari eta erlijioso bokazioari, baina albistea niretzat aizkorakada bat duk. Uste eta espero nian, nire oinordeko izango hintzela.

Jose Luisek ondo barneratua zuen. Atseginez bizi zen etxean eta denek maitatua sentitzen zen. Baina kaputxino nahi zuen. Oztopo bakarra bazegoen, egungo ikuspegitik gezurra ematen badu ere: hamalau urtez, helduegia, zaharregia zen apaizgaitegira joateko. Bertatik jakinaren gainean jarri zuten: hara joan nahi bazuen, beste guztia utzita, latina ikasteari gogor ekin beharko zion lehenagotik joandakoen maila lortzeko. Eta horrela, *Los Ángeles* Ikastetxea utzi, Kontserbatorioa utzi eta latina ikasten jarri zen bete betean kaputxinoen laguntzaz.

Semetxoaren poza

Anaiarrebek aitortzen dute txikitatik bazuela zerbait berezirik. Urtero joaten omen zen familia osoa San Juanetan Hernanira, hango festak zirenean. Ama Conchak ederki estutzen zuen burua semealaba guztiak apain dotore eramateko bertara. Jose Luisi

sandalia berriak erosi zizkion eta egun batzuk lehenago hasi zen sandalia horiekin ibiltzen, minik ematen ote zioten nabaritzearren. Baina lagunekin, eguraldi oneko batean, hondartzara hurreratu eta, sandaliak hondar gainean utzita, bainatzera abiatu zen. Uretan atseginez ibili ondoren, arroparen bila etorri zenean, sandaliarik ez zegoen: itsasoak eramanak zituen. Bila bila aritu ondoren, sandalia bakarra aurkitu zuen eta etxera kojuka iritsi sandalia bakarrez:

—Baina zer egin duk? Sandalia galdu itsasoan? —ama ernegatuta noski.

—Lasai, ama, agertuko da. Ikusiko duzu.

—Babua al haiz? Nola agertuko da? Itsasoak eraman badik, eraman dik eta kito.

—Ezetz, ama, ikusiko duzu nola agertzen den. Ziur.

Jose Luis egunero joaten hasi zen hondartzara sandaliaren arrastorik ote zegoen ikustera eta, egun batzuk pasata, aldagelen sarrerako ataka baten burnian zintzilik aurkitu zuen. Etxera eraman zuen eta ama harrituta geratu zitzaion:

—Ikusten, ama, esan nizun agertuko zela.

—Baina, nola aurkitu duk?

—Oi, ama, fede txikiko emakumea!

Itxuraz ere berezia omen zen Jose Luis. Kiskur horailak zituen, ipuinetako printze baten tankeran. Behin anaia Iñakiri Kristau lkasbide Eskoletan burutzen zen Pazkoako zozketan, arkumea egokitu zitzaion. Arkumeak ere ile kizkurak zituen. Jose Luisen ahaidea ematen zuen. Biok elkarrekin argazki batean atera zituzten.

Gauetan ere somnanbulu ote zen errezeloa dute bere arrebek. Behin harrapatu zuten gurasoek, gauerdian, lokartuta baina tente, etxeko atean kalera atera nahiz. Harrez geroztik zerraila gauero ixten zuten. Beste batean, goizean jaiki zenean, ohe azpian utzitako zapata blai eginda aurkitu zioten. Galdetu arren, hasieran berak ere ez zekien zergatik. Geroago, gosaldutako bitartean etorri zitzaion oroitzapena: gauean txizagureak bultzatuta zapata hartu pixontzia zelakoan eta bertan ixuri zuen maskuriko ur hori gurtia. Amaitzean horrela bota omen zuen:

—Hau duk hau txiza egitea!

Isidro Ansorenak, emazteari bezala, semealabei ere musika pieza koskor bana eskaini zien. Egun famatuena agian *Ana Mari* baltza eta *Prantxiska Martiña* arin arina dira. Jose Luisi eskaini zionak, etxeko haur guztiei egiten zien jolas moduko baten doinutxoan hartzen zuen abiada. Eserita zegoela, haurra izterren gainean jarri eta belaunak gora eta behera txandakatuz, honela kantatzen zien: *Turrukuttuttukuttuttaku, tturrukuttuttukuttutta...* Izenpuruak, umeak barrez lehertzen baikinena jolas honetan, ederki laburbiltzen du Jose Luisen haurtzaroa: *Semetxoaren poza*.

Urbasaren magalean

Cara al sol con el hábito nuevo

Jose Luis, 1942ko irailean, Altsasura joan zenean anaiarriba guztiak negar egin zuten. Consuelo arrebak gogoan du bere ohea, gela *ilunean*, Joskin anaiak hartua harrez geroztik, egunero txukuntzen zuenean, nola etortzen zitzaion Jose Luisen oroitzapena eta gorputz osoa samurtzen zitzaiola. Oso noblea eta laztankorra zelako. Consuelok uste du kontu guztiak beste anaiarrebek baino lehenago antzematen zituela, etorkizuna igarri agian ez, baina *sumatzeko* doaia zuela.

Jose Luis, aldiz, lasai eta pozik joan zen Altsasura. Hara iritsi eta lehenengo eguneko eskolan, irakasleak latinezko galdera zerrenda luzea jarri zion. Nonbait ondo baliatu zituen banakako eskolak eta dena ondo erantzun zuen. Irakasleak irribarez jarri zion amaiera puntua itaunketari: Oso ongi. Zuen beldur bakarra, han geratzeko mailarik ez ematea, hitz horiekin uxatu zuen. Geroago latinezko poemak idaztera ere iritsiko zen.

Hamabi urte pasa behar zituen etxera etorri gabe eta, familiakoak bertaratu ezean, etxeko inor ikusi gabe. Baina etxekoak berehala hurreratu zitzaizkion: aita eta ama hilabete gutxitara semea ikusi eta besarkatu nahiz. Ez zorte onez. Ama Conchari bidaiari poltsoa lapurtu zioten eta.

Handik aurrera atseginez bizi zituen San Frantziskoren oroigarritz *serafikoak* deitzen ziren urte haiek. Hasieratik Altsasuko hotzetan sandalia jantzita ibili behar bazuen ere, ez du oroitzen hotz handirik pasa zuenik. Sandaliak gobernatzen Kontxako hondartzan ikasia baitzuen.

Egun gogoratzen da ikastetxeko Diziplina Prefektuak *porlan*⁵ patioan, lerroetan jarrita, denei *Cara al sol* Falangeren himnoa kanta arazten ziela. Ezin zuen orduan jakin urte asko pasa ondoren, himno horren egilearen obra musikala berak bilduko zuela *Eresbilerako*⁶. Orain pentsatuta, konturatzen da oso irakasle frankozaleak zituela, baina garai hartan burutik ez zitzaion pasa ere egiten. Oso inozentea zela dio. Eta munduan zer ari zen gertatzen –1942ean esaterako Alemaniako Gobernuak juduen *arazoa* Gestaporen esku uztea erabaki zuen– ez zuen sumatu ere egiten.

Sumatzen zuen, ordea, euskararen galera. Nonbaitetik eskuratu zuen euskararen gramatika liburu bat eta leku guztietara eramaten hasi zen, hura ikasten ibiltzeko zituen tarte txiki guztietan.

Jarrera traketsa izateagatik edo bestelako edozein konturengatik, inor apaizgaitagirako egokia ez zela erabaki eta etxera bidaltzen zutenean, orduantxe hartzen zuen tristeziarik handiena. Berarentzat aukera ezinhobea baitzen kaputxino izatea eta beste inork, nahi izan arren, ezin bide horretan jarraitzeak tristatu egiten zuen.

Entxufatua

Altsasun Ignazio Larrañaga ikaskide azpeitiarrak esaten zionez, *entxufatua* izan zen. Egun mundu osoan bere liburuak zabaldu dituen kaputxino honek, garai haietan musika ikasteko irriki bizia zuen, baina horretarako baimenik lortzen ez. Jose Luis, aldiz, beti kurtsuko abesbatzaren zuzendari izan zen. Bi irakasle izan zituen,

5. Portland zementozko zoria zuelako jarri zioten izena noski.

6. Juan Telleria musikari zegamarraren Madrilen bizi ziren hiru alabekin harremanetan jarririk, haren obrak fotokopiatzea lortu zuen eta Eresbilerak ekarri. 1995 urtean, jaiotzaren mendeurrenean, *Musikasten* protagonismo berezia izan zuen: *La Dama de Aizkorri* egile honen poema sinfonikoa eskaini zuen Euskadiko Orkestrak besteak beste. Egun obren horien orijinalak Madrilgo *Biblioteca Nacional* delakoan daude, geroago familiak saltzea erabaki eta Estatuak erosi zituelako.

biak nafarrak, musikabidea erraztu ziotenak: Lorkako Frai Anbrosio eta Ziraukiko Frai Luzio.

Zergatik jarri zuten fraileek beti musika alorrean arduradun? Isidro Ansorenaren semea zelako? Agian, baina dudarik gabe, baita ere berarengan horretarako doaiak ikusi zituztelako. Urteetan aurrera jakingo zuen berak, Beltran Pagola, bere Kontserbatorioko irakasleak, Isidorekin topatu zen batean esandakoa:

—Isidro, zer da zure seme Jose Luisekin, aspalditik ez da Kontserbatorioan azaltzen eta?

—Ez al dakizu ba? Kaputxinoetara joanda.

—Pena da ba, musikan ona zetorrelako.

Bizarra nahi

1943ko abenduan Donostiako Schola Cantorum abesbatza Gasteizera joan zen, Eguberri aurretiko egunetan, kontzertua eskaintzera. Sortu berria zen honetan Consuelo eta Iñaki anaiarrebak eta adiskide hainbat aritzen ziren kantari. Komentura idatzi zioten horren berri emanez eta Jose Luisek baimena eskatu zuen tren geltokira atera eta bere anaiarreba maiteekin hitz egin ahal izateko, labur bazen ere. Fraile baten ardurapean utzi zioten joaten.

Anaiarrebak trenaren lehioan zeudela eta bestea nasan, konturatu ziren Jose Luisen aurpegia urratuz josia zegoela eta galdetu egin zioten horren jatorriaz:


—Orain egunero bizarra egiten dudalako eta minduta geratzen zaidak.

—Baina zertarako egiten duk bizarra, alerik ez daukak eta?

—Azkarrago haziko ote zaidan.

Jose Luisek nonbait benetako kaputxino izan nahi zuen eta horretarako bizarra izatea beharrezkoa iruditzen zitzaion. Sardinetan maite ez zuena, berarentzat nahi zuen.

Oso kalifikazio onak ateratzen zituen arren –urtero bere mailako *Saria* lortu baitzuen– ikasi ez zuen asko egiten. Esku



pilotan, ordea, sarri aritzen zen. Egun gogorazten duenean harritu egiten da musika irakasleek nola ez zioten hura debekatu. Pianoa eta harmoniuma jotzeko eskuak handituta izaten baitzuten maiz. Inork ez omen zion horri erreparatzen nonbait.

Urbasarekin lehenengo harremana ere Altsasuko garai hauetan izan zuen, mendira ateratzen uzten baitzieten batzuetan. Taldeetan eta errosarioa errezatzen ibili behar izaten zuten.

Ezohiko margoen artista

Altsasun aspaldiko beste zaletasunari ekin zion: marrazteari. Erraztasuna zuen horretarako eta postaz gidatutako kurtsu bat egitera ere iritsi zen. Marrazten ikusten zutenak harrিতa geratzen omen ziren, ez zutelako ulertzen nola marrazten zuen horren ongi eskuan zuen dardara izanik. Baina ongi marrazten zuen.

Behin, Eguberri sasoian, etxera bidali zuen gogo handiz marraztu eta margotutako Gabon posta-txartela. Hura etxera iristean anaiarreba guztiek barre galantak egin zituzten, Josu Haurraren matrailak, gorriak beharrean, berdeak jarri zituelako. Hortxe hasi zen igartzen beste anaiekin batera zuen ezaugarria: daltonismoa⁷. Ama Conchak ez zuen denborarik galdu eta, konturatu bezain azkar, berak gorritu zituen masail haiek, inork errespetu faltatzat hartu baino lehenago.

Apika akats genetikotzat jotzen den ezaugarri horrek eman dio mundua ohikoak ez diren beste koloreetan ikusteko gaitasuna.

7. Daltonismoa (izen zientifikoa: *diskromatopsia*) koloreak ongi bereizteko akats genetikoa da. Gehienetan, Ansorena Mirandatarrenean horrela izan da, emazkumezkoek transmititzen dute, baina gizonezkoetan agertzen da.

Saltoka: Hondarribia, Zangotza, Zaragoza, Iruña

Itsasoa laino dago

Altsasuko ikasketak amaituta, 1946ean, Hondarribira joatea egokitu zitzaion, Amuteko Komentura, Filosofia latinez ikastera. Eginkizun horretan, hemezortzi urte zituelarik, ez zen horren ikasle on suertatu. Ikastetxeko zuzendariak uste zuen ez zela liburuetan nahikoa konzentratzen. Behin ikasketa orduetan, bere gelan – hau ere Hondarribiko berrikuntza izan zen, bakoitzarentzat gela bana– azaldu zitzaion ustekabez denbora galtzen edo jolasean harrapatuko zuelakoan. Baina Jose Luis liburuaren aurrean zen. Eta honelako galdera zoroa egin zion:

—Ikusi al duzu tranbia hemendik pasa ote den?

Hala ere musikatik baztertu egin zuen puska batean ikasketen maila jaitsieraren arrazoia hau ote zen errezeloaz. Alferrikakoa zela konturatzean, handik gutxira, berriro utzi zion musikan jarduten.

Aita Donostia joan zitzaion behin hitzaldia ematera eta, ohi zenez, ongi etorri eman zitzaion pieza musikal batez, ekitaldia zabaltzean: Jose Luisek, omenaldi gisan, *Oinazez* preludea jo zuen pianoan. Aita Donostiak ez zuen guztiz gaizki ikusi. Baina Musika irakasleak ez zuen ontzat eman: “*Ausartegia, ausartegia!*”.

Mendizaletasuna ere landu zuten itsas ondoan baziren ere. Jose Luisek uste du garai haietan orain baino gehiagotan gertatzen zirela egun euritsuak. Hasiera batean ostegunak ziren ateraldi egunak. Ostegunak, baina, hainbestetan euritsu izaten zirenez, araua aldatu behar izan zuten: “*Irtenaldia izango da eguraldi onez altxatzen den astearen lehen egunean*”. Lezoraino trenez joaten ziren batzuetan eta handik Jaizkibelego gain osoa korrituz, komentura itzuli. Aiako Harrira ere sarri joaten ziren, Irungo aldetik, gehienak oinetan apretak jantzita. Ez zegoen gehiago. Noizean behin itsasoan bainatzera eramaten zituzten frailekume guztiak, Hondarribian *Fraileen hondartza* izenez ezagutzen zuten txoko ezkutura. Eta atseginez ibiltzen ziren uraren freskuran. Jose Luisek beti izan baitu oso gustukoa itsasoan bainatzea. Oztopo bakarra: denentzako txaparrorik ez eta txandaka bainatu behar izaten zuten, elkarri erabilitako bainu jantzia pasatzen. Hura eskasia.

Behin, fraile baten laguntzaz, oftalmologoarengana eraman zuten, ikusmenean arazoren bat zuela eta. Honek proba batzuk egin zizkion eta betaurrekoak jазtea agindu. Oftalmologoak burua batera eta bestera astintzen zuela nabaritzean, fraileak aitzekia gisan esan zion:

- Badakizu, garapen sasoian dago eta —Medikuak erantzun:
- Txuleta ezaren sasoian dago, horixe.

Eskasia horren ondorioz, oftalmologoak, betaurreko ezin itsusiago batzuk eskuan hartuta, honela esan zion fraileari:

—Hemen dauzkat inori erakutsi ere egiten ez dizkiodan betaurrekoak. Legeak behartzen gaituelako dauzkat. Hori bai, oso merkeak dira, hamabost pezeta.

Betaurreko horiek jantzi behar izan zituen. Ez du gogoan noiz utzi zion eramateari, baina azkar ziur aski.

Zangotzako diziplina

Zangotzara bakarrik urte beterako eramaten zituzten 1948an: Nobiziotza egitera. Honek aldaketa handia zekarren berarekin. Jazkera aldetik, iada *esclavina* delako bizkarrekoaren ordezt,

kaputxinoen bereizgarri den txanoa erabiltzen hasi ziren eta bizimodua ere latzagoa. San Frantziskoren Erregelak ikasi behar zuten. Ofizioen jarraipena: *Matutiak* eta *Laudeak*; *Gorespenak*, gaueko 12etan. *Prima*, *Tercia*, *Sexta*, *Nona*, *Bezperak* eta *Konpletak*. Horrekin batera, penitentzien erabilpen kontseilatua: zurdatz edo zilizioa eta bestelako autozigorrak.

Han ere ikasketetarako arazo bera izan zuen. Ez zen konzentratzen irakasleek nahi zuten eran behinik behin. *Otoitz gizon* bihurtzea nahi zuten, ordu luzetan otoitzean egoten zekien pertsona. Jose Luisek aitortzen du:

Nik nahi nuen eskatzen zidatena egin, baina ezin. Nirekin hura porrota izan zen. Ez nintzen otoitzean biltzen. Kezkatuta ibili nintzen horrekin, aitor-entzuleari ere esan nion. Konturatu nintzen arte, nire otoitz modua jarduera zela, hura zela nire benetako otoitza.

Nobizioen Maisu zorrotza zuten, zorrotzegia ere, urte hura luze senti arazteko modukoa. Beste askori bezala, Jose Luisi ere ez zitzaion gustatzen eta matxinada txikia egin zuen. Nobizio gehienak Maisuarengana joaten ziren aitortzera. Baina Jose Luisek beste bat aukeratu zuen: erretzailea zen fraile bat, garai hartan gaizki ikusia zegoen kontua. Maisuari ez zitzaion gustatu eta aurpegiatu egin zion. Jose Luisek, ordea, bereari eutsi zion, matxino sena bazuen eta.

Zangotzako komentuan, kaniletako ura ez zen edangarria eta horregatik hango uda beroan gazte haietzako ur freskozko txantxil bat jartzen zuten patioan. Handik edan baino lehenago Nobizioen Maisuari baimena eskatu behar zioten. Halako batean maisu hori bera txantxiletik edatera joan eta, inork egun osoan baimenik eskatu ez bazion ere, txantxila erabat husturik aurkitu zuen. Errierta galanta entzun behar izan zuten. Iada ez ziren serafikoak, ordea, eta barrutik algara ederrak egin zituzten.

Hemen hasi zitzaien ere garaiko beste ohitura, egun xeble iruditzen zaiguna. Bazkari garaian, beste guztiek, isilik, sabela bete bitartean, banaka altxatu, belauniko jarri eta *Kulpa* agertu behar zuten. Alegia, egindako pekatu edo huts bat esan behar zuten, buru-apalkuntza gisan. Jose Luisen txanda iritsi zenean, hauxe esan zuen: "*Damutzen naiz otoitzaldian arreta galtzen dudalako*".

Zangotzan ere gertatu zen izen aldaketaren lehenengo fasea, profesio minorrarekin batera: boto txikiak egin eta Donostiako Frai Isidro izatera igaro baitzen.

Zaragozan euskaraz

Zaragozan bi urteko ikasketak burutu behar zituzten apaizgaiek, Paduako San Antonioren Komentuan, Torrero auzoan 1949an hasita. Hemen Filosofiako ahaleginetan urte bete eman ondoren, Teologiari ekiten zioten bigarren urtean, Jose Luisentzat aurrekoa bezain gaitz edo okerrago gertatzen zitzaiona. Baina atseginez bizi izan zituen hemengo urteak. Bizimodu lasaia zutelako eta Nobizioen Maisu zakarra Zangotzan geratu zelako.

Zaragozan Iberoko Frai Antonio zegoen, abertzale sutsua, Londresen herbesteratuta urte batzuk pasatu berria, V2 eta V3 Hitlerren bonbak botatzen zituzten sasoin gogorrean eta, horren ondorioz, sikologikoki nahikoa baldartuta geratu zena. Gizon jantzia eta hizkuntza askoren jabe: frantsesa, ingelesa, alemana... Euskara ez, ordea, eta horrek min ematen zion. Behin Aita Donostia Zaragozako komentuan agertu eta Frai Antoniorekin elkartu zen. Biok Jose Luisi honen gelara joateko esan zioten eta han jardun ziren txutxumutxean, Ansorena gaztea entzule, beste inon aditzen ez ziren kontuak aipatzen: Francozaleen pikardiak, Alemaniak gerra galdu izanaren ondorioak Espainiarentzat... Ez zaio ahazten orduan ia eskandalagarri iruditu zitzaion Aita Donostiaren aipamena:

—Eta hemengo kontu hori? Zer da *El Pilar*, harri koskor horren kontua?

Eurak maiz joango ziren *El Pillarrera* otoitz egitera. Baita ere *Moncayoko* gailurretara, non Valeriano Lezeta bere ikaskide donostiarra, arropak kendu eta txiribuiltaka ibili baitzen elurraren gainean, larrua erreta geratu zitzaiola luzerako.

Zaragozan ere izan zuen sermoilari izateko aurreneko ikasbidea. Lehenago *Kulp*arekin bezala, bazkari garaian ere, txandaka predikua egin behar izaten zuten beste bazkaltiarrek isilik zeuden bitartean. Jose Luisek txikitandik zuen euskararen minak eraginda, bere

sermoia euskaraz ematea otu zitzaion eta horretarako baimena eskatu zuen. Baita harrigarriro eman ere, geroago agian euskal herrietan horri ekin beharko liokeelakoan. Han bota zuen bere hitzaldia, beldurrez ez zelako oso trebea sentitzen euskaraz, eta bazkal ondoren Iberoko Frai Antoniok esan zion:

—Gustora emango nituzke nik dakidan frantsesa, inglesa eta alemana, zuk duzun euskara maila izateagatik.

Zu ez zara aita, ezta Isidro ere. Aita Isidro ni naiz


Apaiz sagaratu aurreko hiru urtetako azken txanpa, 1951etik aurrera, Iruñan eman zuen. Teologiarekin Filosofiaren zailtasun berberak izan zituen, abstraktuegia zen berarentzat eta ikasle traketsa sentitzen zen. Beste alorretan atseginez zebilen, ordea. Aldizkari bat argitaratzen zuten ikasleen artean, non berak poemak idazten zituen, baita marrazkiak egin ere. Harmoniuma utzi eta hemen ezagutu zuen *mediofonoa*, organorako bidean urte haietako bitxikeria. Harmonium baten barruko makina izanik, oinpekoak eragin beharrean, motor batek ematen zion haizea eta bi teklatu zituen.

Uda garaian kaputxinoek Urbasan zuten etxetxora joaten ziren hogeita hamar egun pasatzera. Halako batean, irakasleak festa berezia zelako, abuztuko Ama Birjinaren egunaren bezpera agian, gaueko ordu bata arte utzi zien ibiltzen inguruetan. Jose Luisek txistua eta danbolina atera eta jotzen hasi zen. Ikusgarria: hogeitazte gaueko ordu txikietan, kaputxino jantzita eta txistulari baten doinuan saltoka. Inor ez zen ibiltzen paraje eta desordu haietan, baina hara non kamioi bat agertu zen eta frailekume kuadrilaren aurrean geldirik geratu. Kamioizaleak atea ireki eta txundituta galdetu zion:

—Zertan zabilzate? —Hori galdetzean, Jose Luisek bota omen zion:

—Segi zu ere dantzara.

Kamioizaleak barrez egin eta, kamioian sartuta, bideari jarraitu zion. Jose Luisek bere poza konpartitu egin nahi zuen.



Iruñako Apaiztegiko elizan hartu zituen orden minorrak, subdiakonotza eta diakonotza, beste ordenetako fraile askorekin batera hartu ere. Eta 1953eko abenduko 23an, Teologiako laugarren ikasketa maila hasi berria, ohitura zen bezalaxe, Gregorio Ignazio Larrañaga, Txinatik egotzi berria zen gotzain kaputxino gipuzkoarrak, Iruñako kaputxinoen San Antonio elizan, beste hainbatekin batera, apaiz sagaratu zuen esku-ezarpenaren bitartez.

Handik egun gutxitara Donostiako Komentura etorri zen, urtarrileko 2an, bere lehenengo meza prestatzera. Txango hori, hainbeste urteren ondoren, Hernani kaleko familiaren etxeari ikustaldia egiteko baliatu zuen. Gogoan du, ateetatik pasatzean makurtu egiten zela. Noski, ume txiki joan zen eta gizon puska itzuli. Komentuetako pasabide zabal garaietan ohitua, ipotx etxe iruditzen zitzaion hura. Apaiztuta, *Donostiako Aita Isidro* izatera pasa berria zen. Baina aitak horrela bota zion ikustaldi hartan:

—Zu Aita Isidro? Zu ez zara aita, ezta Isidro ere. Aita Isidro ni naiz.

Kirola, kantua eta fedea

Aita Donostiaren itzala

Ohienez, apaiztu ondoren, bere ziudadeko kaputxinoen elizan lehendabiziko meza: Lurdesko Ama Birjinarenean 1954ko urtarrilaren 3an. Usadioa zen aitatzari erlijiosoa eta zibilak izatea. Gurasoak hauek, Isidro eta Concha, *Esku garbiketaren* tartean aldarera igotzean erraietaraino hunkiturik, semea bizardun kaputxino bilakatuta ikusirik. Eta aitatzari erlijiosoa luxuzkoa: Jose Antonio Zulaika, *Aita Donostia*⁸, bere burua eskaini baitzuen. Ematen du musikari eta musikologo handi haren itzalak jarraitu ziola ikasketen ildoan eta eragina izan duela Jose Luisen bizitzan, bideak nola urratu argitu dizkiolarik.

Mezako sermoia lehengusu apaiz tokaioak eman zuen, Jose Luis, Joxe Ansorenaren seme hernaniarrak, Donostian famatua urte askotan bertako Apaizgaitegiko irakasle izan zelako. Honelaxe esan zion: “*Garrantzizko zerbait izan behar duzu bizitzan. Zure aitak txistu alorrean izan duen duintasunaren pare lortu behar duzu zuk apezgoan*”. Gurasoek erregalia seinalatua egin zioten: ebano eta zilarrezko txistua, Isidrok berak egina. Txistu horrek

8. Aita Donostiak 1952ean monografia bat eman zuen argitara: *Instrumentos musicales del País Vasco*. Bertan tarterik luzeena txistuari eskaini zion eta, ohar batean aitortzen duenez, Isidro Ansorenari zor zizkion datu guzti haiek. Lehenagotik elkar ezagutzen bazuten ere, hortik sortu zen adiskidetasun handia bien artean. Egun monografia honetara gerturatzeko biderik errazena hauxe: *Obras Completas del P. Donostia*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 1983. II tomoa, pp. 257-309.



makina bat aldiz jo izan du Jose Luisek festa giroan eta jardun apostolikoan, Iruña eta Erreteriako gazteekin.

Aurreneko mezaren ospakuntza borobila gertatu zen. Anaia Iñakik Schola Cantorumeko abesbatza eta dantzariak eraman zituen. Orduan ez zen ohikoa dantzariak zeremonia batean parte hartzea. Eta ospakuntzaren momentu batean, Ansorena Mirandatar beste zortzi anaiarrebek batera abestu zuten Luis Iruarizaga konpositorearen *Madre de amor y consuelo* otoitz ederra.

Bazkari ederrez itxi zuten ekitaldia Miraconchako *Azaldegi* jatetxean. Bazkalondoan Ansorenatarren taldeak –Isidro, Jose Luis eta Iñaki– txistu kontzertua jo zuen denon gozamenerako.

Bide guztiak ez doaz Erromara

Jose Luisek hitz eginda zuen kaputxinoen agintariekin musika ikasten jarraitu nahi zuela. Onarpena emana zioten eta Erromara ikastera bidaltzeko asmoa azaldu ere bai. Baina, apaiztu eta berehala Iruñan arazo batekin topatu ziren fraileak: Eskolaniako aurreko zuzendaria, Aurizberriko Frai Karlos, Lekarozera bidali berria zuten eta ordezkoa behar. Beraz Jose Luisi eskatu zioten urte bete atzeratzea Erromarako bidaia hura.

Eskolaniarekin ez zuen hasieran asmatzen, berak aitortzen duenez. Zuzendari berriarekin Eskolania makaltzen eta maila jaisten hasi omen zen. Bere kezka agerturik, lagun batek aholkatu zion Donostian zen Aita Patxi Lazkano kaputxinoarengana jotzea, hark lagunduko ziola. Eta horrela egin zuen. Aita Patxi emandako aholku eta ariketei esker, hasi zen hobeto ulertzen Eskolaniako martxa nola bideratu behar zuen eta piskana mailaz igotzen hasi zen kategoria bikaina lortu arte.

Harrigarria bada ere, garai hartan ez zieten solfeorik irakasten Eskolaniako partaideei. Dena buruz ikasten zuten. Eta Jose Luisek ere buruz ikasi behar zituen partitura guztiak. Garai hartan elizako arratsaldeko funtzioan ia egunero abesten zutenez, baita meza askotan ere, zuzendariaren burua benetako musika biltegi erraldoi


bihurtzera iritsi zen. Juanito Eraso, kantu irakaslea etortzen hasi zitzaion komentura eskolak ematera, baina behin eta berriz errepikatzen zion: “*Aukeratu behar duzu: kantari edo zuzendari. Ahotsean iragartzen zaizu zuzentzen duzula*”. Ez zuen aukera egiterik baina.

Eskolania, soilik Nafarroan barrena ez, erbestera ere eraman zuen. *Pueri Cantores* Biltzar hainbatara egin zuten bidaia. Bereziki gorde dute bihotzean garai hartako kantariak Loretora egindakoa. Hamabost egunetako bidaian, Erroman ia aste bete geratzeko aukera izan zuten, eskale gisan noski: halakoen komentura joan kantatzera bertan bazkaria edo afaria eman ziezaieten. Baina zoragarri gertatu zen, Jose Luisentzat ez beste guztientzat. Olazarango Frai Hilario kaputxino xeblete eta txistularia beraiekin eraman baitzuten eta Erromako kaleetan gelditu gabe txistu eta danbolina elkarrekin jotzea nahi izan zuen, lotsa ederra pasa araziz.

Padre Patines

Hala ere, ez zuen hura eginkizun bakarra Iruñan. Apaizgoari –monja batzuen kapellaua zen eta egunero joaten zen haiengana meza ematera– zegozkionez gainera, Eskolaniako haurrei eskolak ere eman behar izaten zizkien: frantsesa, matematika, marrazkigintza... Eta bertako partaide ohien eskaera bati erantzunez *Asociación de antiguos alumnos y Juventud de San Antonio* delakoa sortu zuen. Geroago, bestelako lagunak bertan integratzen zirela ikusita, izena aldatu egin zion: *Juventud Antoniana*. Garai hartako gazteek nafar hitz berezia erabiltzen gogorazten dute Jose Luis oso hurbileko sentitzen zutela: “*Era muy rocero*”.

Hauekin, kirola lantzen hasi zen. Donostian Kursaal zaharreko marmolezko pista batean aritzen zen patinen gaineko hockey talde bat. Jose Luisek Iruñan antzekoa sortu nahi izan zuen. Ez zekien irristailuz ibiltzen, baina han laguntzaile agertu zitzaion Valencia jaun bilbotarra –nondik eta nola agertu, ezta izenaz ere inor ez da gogoratzen–, irristatzen trebezia handikoa eta kirol horretan Bilboko Athletikaren jokalaria aritutakoa nonbait, eta hark erakutsitako apurrarekin nola edo hala moldatu zen gazteei



kurpiltxoek gainean gorputza eusten irakasteko. Gazte haiek familia apaletakoak zirenez –trukea horixe zen: haurrei eskolak doan eman beraiek liturgiako kantari izatearen ordainetan– kaputxinoek erosi zituzten irristailu batzuk eta beraiei utzi. Beste batzuk berak fabrikatu zituen, komentuan utzi zioten tailertxo batean, eta sarri hondatzen zirenez, makina bat ordu pasa zituen Jose Luisek traste haiek konpontzen. Deigarri gertatzen omen zen kaputxino jazkeraren gainean *mandarra* jantzita saltsa horietan ikustea. Taldearekin Santanderrera joan ziren batean, bertako egunkari batek egin zuen erreportaian honelako izenpurua jarri zuen: *El Padre Patines*.

Kirolan etorkizun eta sona handiagoa izango zuen beste ekimena ere jarri zuen abian: esku baloi taldea, egun *Portland San Antonio* izenaz ezaguna eta maila bikaina lortu duena. Euskal dantzari taldea ere antolatu zuen, non bera zen dantza maisu –umetan ikusitakoa zuen alor honetako jakintza, besterik ez– eta txistularia. Jarduera hauei esker, herri askotako festetara joaten hasi ziren eta bertako partaideek gogorazten dutenez *Trapp Familia* ematen zuten, jai egun osoa beraiek antolatzen zutelako. Herri batean kontratatzen zituztenean, Meza Nagusian kantatzen zuten, jarraian hockey partida antolatzen zuten. Horren atzetik eskubaloiairen txanda. Bazkaltzera herritarren etxeetan banatzen zituzten eta arratsalde, euskal dantzen emankizuna eta kontzertua.

Josexo Mendia eta Alejandro Oteiza, Eskolaniako partaide ohiek ederki gordetzen dituzte memorian xehetasun guzti hauek. Baita eramaten zuten ikurrina ere, debekatuta egon arren, Nafarroako herri ugarietan paseatu zutena inongo arazorik gabe. Aldiz, arratsaldeko kontzertuetan, behin baino gehiagotan, euskaraz kantatzen hasten zirenean, Guardia Zibileko agentea oholtzara igo, Jose Luis zuzendariari belarrira zerbait ahapeka esan eta, handik aurrera, euskarazko abestiak desagertzen ziren errepertorioetik.

Donostiara hockey partida jokatzera ekarri zuen taldea. Denak gurasoen etxera eraman zituen bazkaltzera. Zorionez gose garaiak iraganak ziren eta ama Conchak denei sabela berdintzeko adina eman ahal izan zien.

Horra, horra, gure Olentzero

Giro horretan, Gabon gauean Donostian kalez kale ateratzen ziren *Jaiotzak* etorri zitzaizkion burura. Belengo misterioa agertzen zuten karroza batean: Haurra, San Jose, Ama Birjina, astoa, idia eta aingerutxoak. Haren inguruan gazte kuadrillak Eguberri abestiak kantatzen. Eta Urte zaharrear, aldiz, Olentzero ateratzen zuen kuadrilla abertzale batek: Alejandro eta Jose Mari Arregi, Juanito Aizpurua, *Kirol* Santamaria,...

Jose Luisek Iruñan ere antzeko zerbait egin nahi izan zuen eta honetan, beste hainbat kontutan bezala, Andoni Santamaria Eskolaniako kide ohiaren laguntza izan zuen. Baina lehendabiziko saiakeran, 1955 urtean, Gobernadore Zibilak ez zien baimenik eman. 1956ean, aldiz, Jose Luis, Manuel Valencia Remón Gobernadorearekin hitz egitera joan zen eta baimena lortu. Lehendabiziko urtean, Jaiotza bakarrik. Eta bigarrenean Olentzeroren irudia ere gehitu zitzaion. Harrez geroztik urtero burutu da, Jaiotzaren karroza dagoeneko agertzen ez delarik, azken urteetan, kontu politikoak direla medio, arazoak izan baditu ere.

Jose Luisek hauek bezalako ekimen asko abiatu ditu bere bizitzan, berak alde egindakoa ere, euren bideari jarraitu ahal izan diotenak.

Urbasarekiko amodioa

Apaizgaitegian Urbasa aldean egindako ibilaldiek utzi zuten hazia itxuraz. Horregatik Iruñako gazteekin lanean ari zela burutapena izan zuen: Urbasa aldean kanpamentu bat antolatzea. Ohi bezala, argia piztu, ideia mamitu eta ekintza bihurtu zuen. Iruñako Frai Konradok –Felix Etxegarai benetako izenez eta eskolak ematen lankide– anaia militarra zuen Iruñan, kapitain, eta beraren bitartez tratua egin zuten. Ingeniariaren Patroiaren egunean, San Fernandorenean alegia, kuartelera joaten ziren eta Eskolaniak festa antolatzen zien: kirolak, mezan kantatu... Trukean militarrek uzten zizkieten: dendak, koltxoiak, lotarako zakuak, mendiko plater eta ontziak, sutegi eramangarriak... Denak pozez zoratzen itzuli

ziren. Handik aurrera urtero joaten hasi ziren. Anaia zaharrena, Javi, Justo lehengusua eta neroni ere eraman gintuen bi urtez. Ederki pasa genuen. Kontutxo bakarra zuzendu behar izan zuten. Lehenengo urtean Mari Tere arreba eraman zuten sukaldari, baina horrenbeste egunetarako ezin zuela eta, aurreneko egunetan fraileak eurak ibili ziren sukaldari. Oso txarrak omen ziren eginkizun horretan eta behin baino gehiagotan –garai haietan!– haurrak janaria botatzen ikusi omen zituzten. Ondorioz, bigarren urtetik aurrera, Emilia Travieso Eskolaniako Pablo eta Migel Anjel Larregiren ama, sukaldari izateko konbentzitu eta Jose Luisen bi arreba gazte, Mari Tere eta Amparo, laguntzaile eraman.

Hiru bandera jartzen zituzten kanpamentuan: Vaticanoarena, zuri-horia, Iruñakoa, berdea, eta Nafarroakoa, gorria. Hirurak elkarrengandik oso gertu eta abertzaletasun aldarria irudituta, Guardia Zibilak kendu arazi zizkien. Urte batean, *Vuelta ciclista a España* beren kanpamentu azpitik igaro zenean, Jose Luisek gordea zuen *ikurrina* eskuetan hartu eta errepide ertzean jarri zen bandera astintzen txirridulari guztien aurrean. Guardia Zibilaren motorzale batek, hura zer zen konturatuta, garrainsi egin zion arte: “Padre, quite usted eso de ahí”.

Gehienetan bera Frai Konradorekin egun batzuk lehenago joaten zen dena atontzera. Urte batean, baina, bera bakarrik geratu zen gaua pasatzen. Haizete izugarria etorri, denda altxatu eta urruti samarrera eraman zuten. Goizean bila aritu zen eta aurkitu. Oihala ondo zegoen, baina burniak oker-oker eginda. Eskerrak bentazainari, Zirilo gizon indartsuari. Hark burniak eskuetan hartu eta lastotxoak bailiren berriro zuzen jarri zituen. Jose Luisek beti izan du pertsonen laguntza eta konplizitatea lortzeko erraztasuna.

Horrela hasi zen Urbasarekiko atxikimendu handia, urteen buruan, 2004ean, *Memorias de Urbasa*⁹ liburua idaztera bultzatuko zuena.

9. Ansorena, Jose Luis, *Memorias de Urbasa*. Curia Provincial de Capuchinos. Colección OPI. Pamplona. 2004.

Iruñatik alde egin nahi

Iruñan urte pozgarriak pasa zituen. Oraindik adiskide ugariak ditu orduko ikasleen artean eta deitu egiten dute beren ospakuntzetarako. Baina bertako fraileen komunitateak atsekabe handia eman zion.

Jose Luis gazteen artean ari zen eta nabaritzen zuen garaiak eta harreman moduak aldatzen ari zirela. Gazteek ez zuten iada ongi ikusten mutilak eta neskak banatuta ibiltzea. *Juventud Antoniana* mixto bihurtu behar zela garbi ikusi zuen. Komunitateari proposatu eta leku egoki baten beharra aldarrikatu zuen. Fraideen artean askok ez zuten asmoa ongi ikusi eta ukatu egin zioten. Orduan erabaki zuen hangoak egin zuela berarentzat. Eta buruzagiei beste leku batera bidaltzeko eskatu zien. Pena handiz, Iruñako hamar urteak oso aberats eta pozgarriak gertatu zitzaizkiolako, baina erabateko zorrotasunez ere bai: musika ikasteko asmoari berriro ekin nahi zion eta.


Zaragozako Olentzeroa

Usteak erdi ustelak

Zaragozarakoan, 1964an, Jose Luis sinestuta joan zen behingoz musikaren ikasketan sakon aritzeko aukera izango zuela. Donostiako Kontserbatorioan bere ikasketa txostena eskatu zuen eta berri ona jaso ere bai: haur garaiko ikasgai guztietan *bikain* kalifikazioa zuen.

Paduako San Antonioren Komentua, non komunitate handia eta jarduera trinko ugariak baitzeuden, zen bere lanlekua. Hara iritsi bezain azkar, Superiorak administratzaile jarri zuen, komunitatean izandako liskar baten ondorioz, beste inork ez zuelako postu hori onartzen. Lan horrek musika ikasketetan murgiltzeko asmoa zapuztu egin zion, baina onartu egin behar izan zuen. Eginkizun horretarako autoa gidatzeko baimena behar zuenez, daltonismoaren kontua ezkutatu zuen, bestela ez baitzioten emango.

Musikan aritzeari ez zion utzi, hala ere. Lehendik zegoen Parrokiako Abesbatza adin nagusiko emakumeek osatzen zuten. Berak mixto bihurtu eta berehala gaztetu zen. Bertako *Juventud Antoniana* ere martxan jarri zuen. Eta agian bere euskarazko lehen sermoia Zaragozan eman zuela gogoratuz, han Aragoitar Olentzero antzeko bat prestatzea bururatu zitzaion eta egin. Beti ausarta izan baita ekimen berriei ekiterakoan. Arrakastaz burutu zuten kalez-kaleko jardun kantaria, gaztelaniazko Eguberri abestiez, 1965eko Gabonetan.



Atseginez bizi izan zen Zaragozan, baina, bi urteren buruan, kaputxinoen nagusiek galdetu zioten ea norako ikusten zuen bere burua:

- Naturalena ni Euskal Herrian izatea litzateke.
- Errenteriarra joango al zinateke?
- Horixe baietz.

Erreneriako zurrunbiloa

Jose Luis motorrean

Kontzilio Vaticano II.aren garaiak ziren, 1966eko irailan, Jose Luis Erreneriara iritsi zenean. Iada izenaren txiribuelta eginda zegoen elizaren aire berrietan eta *Aita Isidro* bitxikeria gisan geratu zen Iruña eta Zaragozako oroitzapenetan. Komunitate berria zen hura, zortzi urte besterik ez zuen aurrerantzean berriro Jose Luis izango zena iritsi zenean. *Errosario fabrika* zahar baten etxetxoan bizi ziren, Parrokia eta etxe berria eraiki bitartean.

Lehendabiziko urteetan Zaragozako lagun batek erregalatutako motorrean ibiltzen zen batetik bestera. Miracruz gainetik behera Erreneria aldera zetorrela, istripua izan zuen eta horkatila hautsi zuen. Motor horrek Errenerian martxan jarri zuen zurrunbiloaren alegoria ematen du. Istriputxoak ere izan zituen, baina sendatzen asmatu zuen.

Gaztedi Taldea sortu zuen, garai bateko *Juventud Antonianaren* parekoa. Han txistu eskolak ere ematen hasi zen. Aitari esan zion:

—Aita, Erreneriako gazteei txistua irakasten ari naiz. Hamalau ikasle ditut.

—Zuk irakatsi? Zuk ikasi —Isidoren zirtoa.

Erreneriara etorri bezain azkar, euskararekin aspalditik zuen errorikari erantzun beharra areagotu egin zitzaion. Euskaldunak ugariak zirelako bertako giroan. Luze gabe mezak eta sermoiak euskaraz ematen hasi zen, batzuetan homiliak prestatzeko komunitateko beste fraile baten laguntza behar bazuen ere. Komunitateko errezoak ere sarri euskaraz egiten hasi ziren.

Dena aldaketa gertatzen ari zitzaion Euskal Herriratzeko honetan: bizarra ere kendu egin zuen. Probintziako Superiora inguratu zen batean, horrela ikusita, errieta egin zion. Eta berriro utzi behar izan zuen. Baina berehala betirako kendu, iada ez zuen itxurarik behar mamiraino frantziskotar sentitzeko.

Ez dut abesbatzarik sortu nahi: Andra Mari

Zaragozakoa eta gero, musika ikasi ahal izateko asmoarekin etsita zegoen. Komunitateko Superiorak, Gregorio Ballonak, esan zion:

—Parrokiarako abesbatza sortu beharko zenuke.

—Ez, dagoeneko ez dut abesbatzarik sortu nahi —Lagunak, ordea, behin eta berriz, tankera desberdinetan errepikatu zion eskaera. Azkenean, onartu egin zuen.

Eliza oraindik guztiz eraiki gabe zegoen eta mezak kriptan ospatzen zituzten. Jose Luisek, hango harmoniuma jo bitartean, belarria tente jartzen zuen eliztarren artean ahots txukunik entzuten ote zuen. Horrela ezagutu zuen Mari Carmen Martínez, txistulari familia batekoa bera, Jose Luisek oraindik ez bazekien ere. Igande bateko hamarretako meza amaitzean, Mari Carmenekin zegoen lagunak esan zion:

—Uste dut organoko frailea zure zain dagoela.

—Hara! —eta frailearengana joan zen.

—Parrokiarako Abesbatza sortu nahi dut. Bertan hasiko al zinateke?

—Ezkonduta nago eta bi semealaba ditut.

—Ez dio axola. Moldatuko gara nolabait.

Horixe moldatu zirela. Harrez geroztik, Mari Carmen eta bere familia osoa laguntzaile izan ditu abesbatzan, Musikasten, Eresbilen, baita Urbasako egonaldietan ere. Mari Carmenek eta bere familiak argi dute zergatik jarraitu zioten eurek eta beste hainbeste pertsonak ere Jose Luisi:

—Berak ideia bat izaten zuenean argi adierazten zigun zer ikusten zuen eginkizun —Mari Carmenek dio.

—Berak proposatutakoa ezinbestekoa zela ematen zuen, nahi gabe konbentzitu egin gintuen. Oso gertuko sentitu arazten zigorako eta konfiantza ematen zuelako —Pello semeak.

—Etorkizuna sentitu egiten zuela esango nuke —Pedro aitak— Bera abiatzen zen eginkizun berrietan eta, jarraitzea besterik ez zegoen.


Horrela ibili zen jende bila, beste abesbatzetan aritutako batzuk biltzen, iada ahots egokitua zuen jendea elkartzen. Era honetan, azkar batean Fatimako Andra Mari Parrokiako Abesbatzak maila ona lortu zuen, kripta hartan bertan entseguak eginez. Eta elizaren zabalpenerako mezan, 1966ko azaroko 13an, estraineko saioa egin zuen.

Txertorik onena: pertsonen arteko trabantza

Oso alor desberdinetan jardutea egokitu zitzaion. Abesbatza ongi tratatutako talde humanoa izatea nahi zuen, partaideen arteko giro atsegín eta onekoa. Begi zorrotzez pertsona eta kantari apartak bildu zituen: Mitxelenatarrak, Arbelaitzarrak, Busselotarrak, Arretxetarrak, Juani Erkizia, Mari Carmen Martínez eta Antontxu Sainz Etxeberria... Beren artean familia harremanak baziren eta adiskidetasunezkoak ere bai. Aise ulertu zuten Jose Luisen mezua. Musika ez, pertsonak eta euren ingurua ziren helburu nagusia. Ideia hori azpimarratu izan du: "*Musikak pertsona eraldatu egiten du eta jaso, fededun izan edo ez*"¹⁰.

Garai haietan, Errenteria inguru zaila zen jarduera kulturaletarako. Frankismoaren aurkako kale mugimenduaren buruzagi eta ondoriozko zartadak hartzen lehenengo lerroan zegoen herria baitzen. Edozein ekimen berriari matrikula politikoa zorrozki begiratzen zitzaion. Abiada hartan *Karlisten Abesbatza* deitu zitzaion Andra Mariri, hasi ziren horien artean familia karlista

10. Alberto Moyano. EL QUID, José Luis Ansorena fundador de ERESBIL. *Diario Vasco* egunkarian egindako elkarrizketa. 2000ko maiatzaren 14.



ezagunetako batzuk ari zirelako. Horrek tentsio une batzuk sortu zituen, azkar batean gainditu zirenak, zuzendariaren eta abesbatzaren portaera ikustean. Alkate guztiekin, alderdi bateko edo bestekoak izan, harreman ona izan dute. Beti leialtasunez eta Errenteriarren hobe beharrez aritu direlako. Andra Mariren partaideak herri ekimen askotan (Iñauteriak, Santa Agedaren koplak, Santa Zeziliaren inguruko kontzertuak...) antolatzaile, laguntzaile edo eusle izan dira, bertako beste elkarteekin ere harreman ezinhobeak izan dituztelarik. Jose Luisek lortu zuen abesbatza bera ere kantarien arteko desberdintasun politikoak gainditzeko guneez bihurtzea.

Programa berritzaileak eta antolaketa buru baten beharra

Hasiera haietan entsegu gutxi egiten zituzten. Astean bitan ordu bakarrez. Denbora ongi baliatu behar zuten eta hitzetan denbora gutxi galtzen zuten. Baina amaierarako, Jose Luisek irakurketa laburrak eramaten zituen, obren inguruko bitxikeriak, musikariaren anekdotak, eta abar, partaideak musikaren interesan murgiltzeko eta euren arteko harremanak sendotzeko.

Piskana pertsona gehiago hurbildu ziren entseguetara. *Kamaba* zortzikote ia osoa eta *Gaztedi* taldeko batzuk ere koruan sartu ziren. Abesbatza kontzertu ugariak eskaintzen hasi zen, deiak ere ugariak zituelako. Neurri handi batean Jose Luisen trebetasun bati esker: programa berritzaileak egitea. Horretan gogo eta lan handia jartzen zuen, musika eskaintzeko era erakargarri bihurtzea zuen helburu. Publikoak igartzen zuen eta eskertzen, kontzertuetan arrakasta ederrak lortzen baizituzten.

Beste abesbatzek hainbestetan eskaintzen zuten erreperitorio folklorikoa ez zuten ia kantatzen. Batzuk horren mina zuten eta horrelakoak ere kantatu nahi zituztela aldarrikatu. Jose Luis prest agertu zen baldintza batez: asteko hirugarren entsegua jarri beharko zen. Eta horrela egin.

Jarduera trinkotze horrekin batera, alderdi antolatzaileak kontuan hartzeko moduko tamaina hartu zuen. Zuzendaritza Batzordea aukeratuta, Jose Luisek bertan beste edonoren mailan

parte hartzen zuen, batez ere ekarpen musikalak egiten. Bertan presidente lider baten beharra ere sentitu zuen eta Batzordean proposatu: “*Kantari ez den pertsona, euskalduna eta jestio arloan eskarmentuduna*”. Bila ari ziren, baina egokirik aurkitu ez. Mari Carmen Martínezi bere senarrarengatik¹¹ galdetu zion Jose Luisek:

—Eta Pedrori proposatuko bagenio? —Horrelaxe egin zuten, baina honek ez zuen erantzun.

Hurrengo urtean, 1968an, Torreviejako *Certamen Internacional de Habaneras*-era jo zuten. Pedro Iburguren ere beraiekin batera abiatu zen autobusean. Torreviejan ekitaldi batean, inork galdetu zion Jose Luisi:

—Zuen presidentea?

—Hauxe —ondoan zuen Pedro Iburguren seinalatuz. Pedrok kontrakorik egin ez zuenez, horixe izan omen zen onarpena. Ez zuen abiada txarra izan, bertan Urrezko Domina irabazi zutelako. Bere lanari eta jestioan martxan jarri zuen talde trinkoari esker, hurrengo eginkizunetarako bidea erraztu zen. Eta bestelako sari eta errekonozimendu asko bildu zituzten handik aurrera.

Ikusi zuen Torrevieja bezalako ateraldi eta txangoak oso egokiak zirela abesbatz barneko giroa sendotzeko eta urtero bidaiak antolatzen hasi ziren: 1969an Torreviejakoa errepikatu zuten, eta geroago Italiako Arezzo, Kataluniako Gavá, Suitza, Galizia, Austria, Belgika, Tenerife, Madrid, Sevilla, Cádiz, Portugal, Hungaria, Argentina...

Izan zituen bere atsekabeak ere Jose Luisek. Batzuentzat ez zuen behar adina kategoriarik abesbatza zuzentzeko eta zioten abesbatzak tonua jaisten zuela sarri bere eskasiarengatik. Baina Jose Luisek uste sendoa zuen: “*Ilusiorik gabe ateratzen bazarete kantatzera, tonua jaitsiko dugu ziur*”. Musikan emozioa oinarrizkoa dela uste izan baitu beti.

11. Ordurako Pedro Iburgurenek, jestioarekin loturiko bere jarduera profesionalaz gainera, bazuen tankera honetako eginkizunetan eskarmentua: *Orereta* Ikastolako Zuzendaritza Batzordean zegoen eta aurretik *Urdaburu* Mendizale Elkartekoan ere bai.

Urbasa berriro

Errenteriako komunitatean zegoen Kaietano Ezeizak irakatsi zion mendian fundamentuz ibiltzen. Mendizale handia zen eta moduak eta manera guztiak erakusteaz gainera, mendiarekiko grina honek areagotu zion. Asteazkenero mendira joaten hasi ziren, baina Kaietanok Errenteriatik alde egindakoan bakarrik geratu zen mendirako eta horrela ibili zen hogei urtez. Asteazkenak bere *off egunak* bihurtu ziren. Geroago piskana lagun koadrilla biltzen hasi zen eta taldetxoa osatu zuen. Hasieran Euskal Herriko mendi guztiak korritu zituzten, halako urte sasoi batzuetan ohitura zehatzak izan arren. Asteazken Santuan, esaterako, Pagoetako *Bide gurutzea* egiten zuten urtero. Eta urteko azken asteazkenean Larrun mendira igotzen ziren Bera aldetik hasieran eta Lizuniagatik geroago, euren IAT (Ibilgailuen Azterketa Teknikoa) zela zioten, mendira joaten jarraitu ahal zuten edo ez ikusteko. Ikusi zutenean hori igotzea neketsu gertatzen zitzaie, aldatu eta orain asteazkenero Urbasara joaten dira, lautadan ibiltzera, belaunek ez baitute barkatzen urteen zama.

Horrekin batera, Urbasaren beste alderdi bat hasi zen lantzen, abesbatzako hainbat familiarekin. 1968an, *Gaztedi* taldeko partaideekin itzuli zen Urbasara, Iruñan antolatutako kanpaldiak gogoan. Bestelako urteak ziren eta ez zen horren ongi izan. 1970an, Iburguren familia zabalarekin eta beste hainbat partaiderekin bertako etxetxoan asteburua pasatzera joateko baimena eskatu zien kaputxinoei bere urteak ospatzeko, maiatzaren 2an. Ederki bizi zituzten egun haiek eta aurrerantzean bi asteko egonaldiak egiteko ere urtero eskatu izan dute etxea. Han denetarik gertatu zaie, baina batez ere pertsonen eta familien arteko harreman ezinhobearen lortzeko bidea izan da.

Pedro Iburgurenen ustez, han familia bakoitzak bere gobernu egina izana da arrakastaren alderdi garrantzitsuena. Denak batera ibiltzen dira, baina familia bakoitzak bere janariak prestatzen ditu eta bere mahaia izaten du oturuntzak egiteko. Jose Luis txandakatu egiten da mahaitik mahaira. Beti iruditzen zaio janaria ona dela eta ahobizarrak batere gabe jaten du.

Hango lagunek gogorazten dute arazoaren aurrean beti izan duen joera positiboa. Pello, Pedro eta Mari Carmenen semeari,

Lehenengo Jaunartzearen aurreko egunetan burutik behera erori zitzaion teilatua margotzeko erabiltzen ari ziren pintura gorri potea. Ama guztiz kezkatuta semeak horrelako zeremonian kaskagorri agertu behar ote zuen. Edo etxetxora iritsi eta ez berogailurik ez urik izan, hoderia osoa izoztuta zegoelako. Jose Luisen jarrera beti lasaia izaten zen eta irribarretsua: “*Konponduko da, konponduko dugu*”. Eta horrela gertatzen zen.

Neska txiki batek, beste guztiek familia han zutela ikusirik, errepikatzen zion: “*Zuk ez duzu emazterik, ez duzu emazterik*”. Baina han berarekin ibilitako gazteek aitortzen dutenez, esku ona du adin guztietako pertsonekin. Badira haurrekin ondo moldatzen direnak, edo gazteekin, edo bereziki heldu edo nagusien tratuan abilezia ona dutenak. Jose Luis, ordea, adin guztiekin egokitu da.

Hots egoki baten bilaketa: Juanito Eraso

Horrekin batera, alderdi teknikoa ere landu nahi zuen. Iruñan kantu maisu izandako Juanito Eraso etorri zitzaion burura. Gizon berezia, harremanetarako ez zen erraza, oso sutsua baitzen bere iritziak azaltzen. Baina kantu heziketarako oso egoki iruditu zitzaion, kriterio garbi eta zorrotzak zituelako. Ez zuen uniformitatearen bilaketan ahotsen ederra galtzea nahi, ez zituen ahotsak distirarik gabe utzi nahi.


Jose Luisek deitu zion eta argiro azaldu zion bere egoera:

- Gutxi ordaindu ahal izango dizugu.
- Gutxi pagatuta ere, ordainduko didazuen bakarrak izango zarete.

Juanito Erasoren lana eraginkorra izan zen. Bere estiloa finkatu zuen Andra Mariren kantakeran, sonoritate ona bilatuz. Jose Luisek hark agindutako arnasketa eta emisio ariketak egiten zituen abesbatzarekin, beren hots propioa lortu zuten arte.

Harrobiaren bila

Kezka zen Jose Luisentzat jarraipena ziurtatzea, gazteei ere kantuaeren ateak zabaltzea. 1967an bere burua eskaini zion *Orereta*



Ikastolari, bertako ikasleekin abesbatza sortzeko. Berrehun ahots baino gehiago probatu zituen eta ehun inguru aukeratu. Hasieratik ederki funtzionatu zuen eta 1976ean, *Oinarri gazte* abesbatza fundatu zuen haur haiek gazte bihurtutakoan abesbatzen giroan jarraipena izan zezaten. Tartean, 1972an, emakumez osatutako lehenengo zortzikotea ere, *Alai* izenekoa, eratu zuen.

Harrobi bilaketa hori ez zuen kantarien arloan bakarrik bideratu, zuzendarien beharra ere nabaritu zuen eta Abesbatzen Federazioak antolatzen zituen Zuzendaritza Ikastaroetara berehala hasi zen partaideak bidaltzen. Zuzendari on bat baino gehiago atera da hortik.

Jose Luisek abesbatz hauek sortu, tinkotu eta azkar batean beste zuzendarien eskuetan utzi zituen. Begi zorrotzez aukeratu zuen bere ondorengoa gero, ohi zuenez, esan ahal izateko: “*Esku onetan uzten dut*”.

Maila handia lortu dute horren ondorioz. Mari Carmen Martínezek gogoan du *Andra Mari* eta *Oinarri* abesbatzak 1979an Torreviejako lehiaketaren XXV urteurrenean gonbidatuta joan zirenean, gaztetxoak kantari ari zirela, jarlekuetan beren atzean zeuden espainiar emakume batzuei entzundakoa: “*¡Cómo cantan estos chavales! Si no fuese por la ETA...*”.

Harrobi honetatik maila altuko kantariak sortu dira, batzuk munduan barrena profesional gisan dabiltzanak: Joxan Matxain, Jon Etxabe, Itziar Martínez, Maite Arruabarrena, Izaskun Arruabarrena...

Musikaren astea

1971ean Enrique García Asensio zuzendariak Erreterian ahaide batzuk zituela jakin zuen. Herrian oso ezaguna den *Calzados Etxeberria* dendako nagusiak ziren eta harremana lotzeko eskaini zitzaizkion Jose Luisi. Ausardiaz, kontzertu sinfoniko-koral bat eratzea proposatu zioten. Ordurako zuzendari famatua zenak abesbatza probatu zuen ikustaldi batean eta ontzat eman zuen. Orkestra behar zen eta Donostiako Orkestra Sinfonikoa

kontratatu zuten. Herriko jaietan, *Madalenetan*, uztailaren 23an, eman zuten kontzertua kaputxinoen elizan. Batetik abesbatza a *capella* atal batean, beste batean Orkestra bakarka eta amaitzeko elkarrekin, Mozarten Requiemaren atal solte batzuk, Gabriel Fauré-ren *In Paradisum*, Richard Wagner-en Lohengrinek *Eztai Martxa* eta beste hainbat. Arrakastatsu eta pozgarria izan zen emanaldia, koruari haize berria ekarri eta bide berriak urratzeko gogoia suspertu ziolako. Donostiako Orkestrarentzat, ordea, egoera tamalgarrian urte haietan, azken kontzertua izan zen hura.

Hain pozik geratu ziren kantariak non halako eskaera agertu zuten: “*Urtero errepikatu beharko genuke horrelako kontzertua*”. Jose Luisek eman zuen ideia: “*Zergatik ez aste osoa antolatu, euskal musika eta musikarien aldarria egiteko? Gure herriak musika alorrean eman eta ematen duena ezagutarazi*”. Horrelako burutapenak askatzen zituen guztietan bezala, hasieran Batzordeko lagunak txundituta eta kokilduta geratu ziren. Baina berehala lortu zuen denek bereganatzea asmoa. Antontxu Sainz Etxebarriak, pertsona eta langile zintzoak proposatu zuen izena: musikaren astea izango bada, *Musikaste*. Eta horrela geratu zen.

Hortik aurrera, motorra ez zen gelditu. Antolamendu berritzaileen sorrera eten gabea izan zen. 1973ean, lehenengo *Musikaste* burutu zen. Arrakasta itzela izan zuen eta taldeko guztiek hurrengo urtean errepikatzea nahi zuten. Jose Luisek ere ondo ikusi eta, ondorioz, 1974an *Idearioa* idatzi zuen, aste horren jardunbiderako oinarri intelektual nagusiak. Benetako lege harriak. Asmoa aurrera ongi eramateko behar bat aldarrikatu zuen berehala: “*Euskal Musikarien Artxiboa* sortu behar dugu”.

Euskal konpositoreen artxiboa: ikerkuntza

Musikasteren idearioak¹² erakusten duen kezka nagusiaren iturburua hauxe da: herri baten bizitzan artea, musika,

12. Jose Luisek idatzi zuen *ideario* hau Musikasteren bigarren ediziorako. Bertan egun ERESBIL denaren asmoa agertzen da, besteak beste. Egun interneten ere aurki daiteke: <http://www.musikaste.com/ideario.asp>

beharrezkoak dira. Baina ez dira hutsetik etortzen, ez dira sasi-
gisan hazten, pertsonak egiten dituzte. Pertsona horien ezagupena
eta euren emankizunen berri zabaldu behar ditugu, baldin eta
kultura mamitua izatera iritsi nahi badugu. Musikasterekin bezala,
izena Antontxuk proposatu zuen, hainbat euskaltzalerekin hitz egin
ondoren: ERESBIL.

Aldarrikapena egin eta berehala ekin nahi izan zion Jose
Luisek eginkizun horri. Ez zuen gogoak hoztea nahi. Jose
Antonio Arana Martija lagunaren ideia batean oinarrituta –
Espainiako Katedraletan Kapera Maisu euskaldun asko izan
zirela– eta Zaragozako motorraren lagun berberak oparitutako
Seat seiscientos baten bitartez, gelditu ezean ibili zen zortzi
urtez. Euskal konpositoreen partituren bilduma handia egin,
gehiago ez galtzea nahi zuen. Fraileen Komunitatearekin hitz
egin eta baimena eman zioten eliza azpiko gelak, Andra Mari
entseguetarako zituenak, horretarako erabil zituzan. Mari Carmen
Martínez idazkari bolondresak, Udalak emandako laguntza
berezia –doaneko nahi adina fotokopia egitea–, baliatzen
lagundu zion. Laster batean toki hura fotokopiez eta partitura
zaharrez betetzen hasi zen. Ia entseguak egiteko lekurik gabe
geratu zen Andra Mari.

Carmen Rodríguez Suso musikologoak lagundu zion bidaia
horietako batean edo bestean, baita Jon Bagues musikologia
ikasleak ere. Hau Errenteriako gazte bat zen, Jose Luisek
ezagutzen zuena *Andra Marin* kantari ibilia zelako eta *Ereintza*
Elkartean txistulari ere bai. *Orereta* Ikastolan irakasle aritu
ondoren, artxibo lanetan espezializatu zen eta Arantzazuko Musika
Arxibo zaharraren Katalogoa prestatu zuen¹³. *Eresbil* Arxiboko
hastapen haietan, beka bati esker, laguntzaile jarri ahal izan zen.
Jose Luis berehala konturatu zen Jonek zituen doaiez eta, beka
amaitu zenean, Diputaziora jo zuen, Imanol Olaizolarengana,
horrelako aukera gal ez zedin. Olaizolak Arxiboari Patronatu
egitura ematea proposatu zuen. Horrela egin zen eta Mari Carmen

13. *Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Aranzazu*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia. 1979.

Martínez eta Jon Bagues bertan langile sartu ziren. Jose Luis zuzendari gisan jarri zuten, soldatarik gabe baina¹⁴. Inoiz egindako lanarengatik ez kobratzea erabaki irmoa izan baita beti bere frantziskotar izpirituan.

Bidaia gehienak, hala ere, bakarrik egin zituen. Eta denetarik gertatu zitzaion hauetan. Batzuetan ez zioten ezer ikusten uzten. Besteetan, aldiz, erabat zabaltzen zizkioten ateak. Málagako Katedralaren Artxiboan, dena miatzen utzi zioten. Jose Luisek orduak eta orduak eman zituen han aurkitzen zuenarekin liluratuta. Ixteko ordua iritsi zenean, atezainak zerraila guztiak zarratu zituen eta argia kendu. Orduantxe konturatu zen Jose Luis, gela iluntzean, zenbat ordu zeramatzan leku hartan. Baina ahaleginak eginagatik ez zuen handik ateratzea lortzen noski. Leiho batera atera eta bertatik garraisi eginez, haurtxo batzuen arreta lortu zuen. Haiei mesedez Katedraleko atezainarengana joateko eskatu zien. Eskerrak atezaina hurbil bizi zen eta haur haiek ere, auzokoak zirenez, ezagutzen zuten. Bestela han pasa behar zuen gaua.

Toledon autoa goraino bete zuen partitura zaharrez, Sevillan, Segovian, Valladoliden... Katedral gehienen artxiboak arakatu zituen. Madrilgo Arte Ederretako Artxiboa ere bai,... Horrela frogatu ahal izan zuen euskal musikari handiak izan zirela lehengo mendeetan, baina Euskal Herrian Katedral handirik ez zegoenez, kanpora atera behar izaten zutela lanera. Ikerkuntzaren bidean hasia zen ohartu gabe, oinarrizko formakuntza eza sentitzen zuen arren. Hala ere poztasun handiak eman zizkion. Txiriparen magiak erakutsi zion kontutxo bat: historikoki ezagutzen den lehen euskal musikaria, Zangotzako Antsoarena izeneko bat zela.

14. *Eresbil* geroago, 1986ean, Eusko Jaurlaritzak eraturako Patronatuan integratu zen, non Gipuzkoako Diputazioa eta Erreterriako Udala ere partaide diren.

Zurrunbiloa

Musikasteren antolamenduak aukera eman zion Jose Luisi konpositore garaikide famatuenekin harremanak izateko: Agustín González Azilu, Karmelo Bernaola, Luis de Pablo, Tomás Marco, Anton Larrauri, María Luisa Ozaita, Félix Ibarrondo... Gehienekin adiskidetasuna lortu zuen eta estima handian izan zuten. Kontrako iritzi askoren aurrean, beti defenditu zuelako artista garaikideen lanak ezagutzeko eta zabaltzeko beharra.

Musikastek ere musikari askoren biografiak eta katalogoak prestatzera bultzatu zuen: Luis Urteaga, Pablo Sorozabal, Jesús Guridi, José María Usandizaga,... Larogei inguru. Batzuk benetako monografiak izan ziren: Norberto Almandoz, Aita Donostia, Jose Juan Santesteban (argitaratu gabea), Raimundo Sarriegi... Musikologoa ez den arren, musikografoa sentitu izan da, musikaren gaien inguruko idazlea.

Euskal artista plastikoekin ere harremanak izan zituen, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea, Rikardo Ugarte,... beti musikaren inguruko egitasmoetan inplikatu nahiz. Elizbarrutiko Batzorde liturgikoaren kolaboratzaile izan zen. Txistulari Elkarteko kapilaua, aurrekoa, Aita Hilario Olazaranez aukeratua bere ordezkotzat izateko hil aurretik. Elkarte honen kolaboratzaile hamaika artikulu argitaratuz *Txistulari* aldizkarian. Ez horretan bakarrik, ordea. Barruko tirabira askotan bitartekari eta baketzaile. Donostiako Txistu Experimentaleko Taldearen laguntzaile ere izan zen eta honen emankizun ugariaren aurretik hitzaldia ematen zuen.

Euskal Konpositoreen Elkartearen sorkuntzan laguntzaile, nahiz bera ez den inoiz bazkide izan, ez delako konpositore sentitu. Lagundu zuten berak eta Andra Marik ere Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren sorkuntzan. Hain zuzen ere, lehenengo presidentea Pedro Iburguren izan baitzen eta bilerak denbora luzez Andra Mariren egoitzan burutu ziren.

Eusko Ikaskuntza, diktadura ondorengo urteetan berfundatu zenean, bazkide egin zen eta Musika atalaren presidente izan zen urte hainbatez, gerra aurretiko urteetan, hain zuzen ere, Aita Donostiak izan zuen erantzunkizun berberaz.

Gure mutil hau burutik eginda dago

Errenteriara etorri berria, bi urte baino gutxiago, hil zen ama Concha. Gurasoen ondoan gehiago izateko aukera ez zen luzea izan beraz. Isidro Ansorenari emaztearen heriotza labankada krudel baten antzekoa gertatu zitzaion. Jose Luisek esan zion:


—Aita, hemen gaituzu semealaba guztiak ere, zure ondoan—. Baina Isidrok ez zuen ulertu nahi:

—Bederatziok batera ez duzue berak adina balio—. Tristezia hori kendu nahiz, aitarekin igande arratsaldetan txango txikiak egiten hasi zen, *Seat seiscientos* hartan. Maiz arreba Consuelorekin eta bere gizon Tomasekin. Hor zehar ibiltzen ziren, mendi inguruan batez ere. Eta itzulitakoan Isidrok maiz errepikatzen zuen: “*Gure mutil hau burutik eginda dago*”, halako bidezidor eta malkarretan gora eta behera ibiltzen baitzituen. Baina lortu zuen aitaren animoa apur bat gozatzea. Erotasun puntua neurrian zuen.

Abesbatz sinfoniko eta lirikoa

Andra Mari abesbatza ibilbide oparoan abiatua zen. Grabazio ugariak burutu zituen, Musikastek emandako aukerekin ohitu zen Orkestren laguntzaz kantatzen eta, ondorioz, kontzertu sinfoniko-koraletan parte hartzeko eskaintzak ugaldtu egin zitzaizkion. Bide sinfonikoaren ondoren lirikaren alorretan ere ausartu zen. Bilboko Operatik deitu zioten “*Les pêcheurs de perles*” operan parte hartzeko, Alfredo Krauss tenore famatuaren ondoan. Emaitzak oso onak izan ziren lehendabiziko saiotik eta eskaintza gehiago etorri ziren: *Don Giovanni*, *Aida*, *Txanton Piperrí*, *Don Pasquale*, *Oleskari zaharra*, *Mendi mendiyán*, *Lucia de Lammermoor*; zarzuelak ere bai: *Black el payaso*, *El caserío*, *Doña Francisquita*... Abesbatz baten gailurrera iritsia zen.

Jose Luisek iada urte batzuk lehenagotik esaten ari zen abesbatzak hartutako mailak bera gáinditzen zuela eta zuzendaritza beste inoren eskuetan uztea komeni litzatekeela. Baina Batzordeak entzungor egiten zien bere hitzei. Horrela ba, hirurogeita bost urte bete zituenean, 1993ean, erabaki irmoa



jakin arazi zuen: “*Erretiratu egingo naiz*”. Eta orduan, 1994 arte erabat utzi ez bazuen ere, kasu egin behar izan zioten. Jose Luisek begi onez ikusi zuen Jose Manuel Tife aukeratu izana bere ondorengo.

Nahikoa dut lan egitearekin

Abesbatzako zuzendaritza utzita, 1994eko udaran Lazkaoko *Maizpide* Euskaltegira joan zen, euskaraz ongi ikastera. Hainbeste urtez gordetako gogoia oraindik asetu beharra sentitzen zuen eta. Eresbilgo zuzendaritzan urte batzuetan jarraitu zuen, baina han ere konturatuta zegoen jarraipen egokia zuela: Jon Bagues. 2000 urtean eman zuen ezagutzera Patronatuan zuzendaritza uzteko erabakia eta Jonen proposamena zuzendaritzarako. Denok ongi ikusi zuten.

Harrez geroztik, Jose Luisek jarraitu du ia egunero Eresbilera joaten eta Andra Marik eskatu dion kontu guztietan laguntzen. Baina bestelako lasaitasunez.

Ez du lana utzi, ordea. EHU-Donostiako Orfeoia saria eman ziotenean egindako elkarrizketa batean¹⁵ honela dio:

—¿Cómo reaccionó al conocer que le habían dado el premio?

—Fue una sorpresa muy grata, aunque no deja de ser un premio. Soy una persona que no tiene necesidad de reconocimientos. Me basta con trabajar y es algo que sigo haciendo aunque me haya jubilado hace unos años.

15. OPI 538, Kaputxinoen Orden barruko aldizkaria: *III De las Fraternidades y de la Provincia. José Luis Ansorena premiado*. 2006eko martxoaren 13. Iruña. 10 o.

Azkueren kantu bilduma eta itzulia

Aspalditik buruan zuen gogoia bete du: Resurrección M^a Azkuek utzitako herri abestien paper zikinen garbiketa. Musikologo honek herri abestiak jasotzen egindako lanaren parte bat besterik ez zuen argitara eman eta bazterrean utzitako koadernoetan denetarik zegoen Euskaltzaindiko Liburutegian. Jose Luisek aztertu ditu eta txukundu, argitaratzeko, paperean edo internetez, prest utzi dituelarik. Beste lan handia izan da, aurreko zerrenda luzeari txapela jantzi diona.

Bestelako lanak ez zaizkio falta. Azken urteetan Donostiako Okendo kaleko Kaputxinoen komentura itzuli da, ibilbide luzea hasi zen leku berera. Han, bizitza osoan bezalaxe, organoa jotzen jarraitzen du eta mezak ematen. Egindako lanak erreparatzen, kolaboratzaile gisan kontu txiki askotan, eta zer pentsa ematen duten arrastoak eskaintzen:

—Cuando aquel mes de noviembre de 1966, improvisó un pequeño coro para solemnizar la inauguración de la iglesia de su Orden, ¿soñó en que llegaría a ser lo que es hoy la Coral Andra Mari?

—No, porque en ese aspecto no soy soñador. Lo único que sé es que cuando se inicia un trabajo y se sigue con regularidad, siempre se llega a una meta¹⁶.

Atseginez ikusten ditu lorpenak. Horregatik esan izan du beste sari batzuk jasotzean: *“El premio más importante es ver la dimensión que ha alcanzado Eresbil”*¹⁷. *“Hoy ya no se tiran a la basura los papeles del abuelo músico”*¹⁸.

16. Abanda Zendoia, Gloria, José Luis Ansorena *“Musikaste es, ante todo, investigación”*. Diario Vasco. Donostia 1991eko ekainaren 9. DOMINGO, Igandeko gehigarria.

17. Flaño, Teresa. *“José Luis Ansorena. Musicólogo”*. Diario Vasco. Donostia. 2006eko urtarrileko 5. 64 o.

18. Falcón, Jesús. *“José Luis Ansorena. Director del Archivo Eresbil”*. Diario Vasco. Donostia. 1999eko otsaileko 2. 64 o.

Musikarekin zordun

Musikarekin zordun sentitzen da. Berarentzat *terapia* izan da bizitzako kinka askotan. Gogoratzen ditu kontzertuen aurreko uneak, non beti isiltasunean egotea gustatzen zitzaion, eta eskua mugitzen hastean nola sortzen zen soinu magikoa. Eta arrakasta izandako hainbeste kontzertuetan publikoaren esker ona, txaloetan adierazia. Izan dituen lagun eta adiskideen zerrenda luzeari begiratzen dio eta sinistuta dio: “*Hainbeste izan badut Musikari esker izan da*”.

Damurik ere badu. Musika eta euskara gehiago ezin ikasi izana. Agian, egin izan balu, konposizio bidean abiatuko zen. Bestela nahikoa konforme egindakoarekin. Fraile izateak diru kezkarik ez ezagutzen lagundu dio. Eta doan lan egitearen poza. Frantziskotartasuna hezurretaraino izan du bidelagun.

Eusko Ikaskuntzako *Manuel Lekuona* saria berari ematea erabaki duten honetan, bideo grabazio batzuk egin dizkio Elixabete Garmendia kazetariak. Luzeak, kontatzeko zuen guztia ager zezan. Amaiera aldean, honela galdetu dio:


- Zer esango duzu saria jasotzeko diskurtsuan?
- Ez dakit. Ea *Andra Marik* kantatzen duen.

Atzean, nonbait Jose Luis ederki ezagutzen duen baten ahotsa entzuten da:

- Jose Luisek beti izan du libertade osoz hitz egiteko ohitura.

O, Jesu mi dulcissime

Jose Luisengandik hurbil bizi izan direnek ezagutu dute bere *ahulezia* bat. Aita Donostiaren *O, Jesu mi dulcissime* motetea zuzentzean, emozioak gainezka egin eta negar malko batzuk isuri arazi dizkio masailetan behera. Itxura handirik gabe, eutsi ezinaren ezinez, malko horiek barruko bidea erakutsi digute, non dagoen sustraituta hainbesterako aukera eman dion kemena. Eta, hitzaren zentzurik xaloenean, fedea da sustrai lekua. Ez fede estu



txikia, konta ezinekoa esateko asmatu ditugun ipuinei erreparatzen diena, baizik-eta, konta ezineko horri aurrez aurre begira, heldu eta mamitu den fedea. Hermann Hessek esan zuena: *fedea izatea ez da jakitea, itxaropena izatea baizik*. Eta nork itxaropen handiagorik itxaropen egileak baino? Itxaropena praktikatzen sortzen baita itxaropena. Horixe izan du bidea.

Erretiratzeko garaian ere, Jose Luisek itxaropen bideak argitu zizkigun. Inork ezer adierazi gabe, berak erabaki zuen bazela besteei bidea uzteko garaia. Berak utzita, bazirelako jarraitzaileak. Gidaritza laga arren, lanean jarraitu zuen. Eta doan noski. Eta Urbasara joaten ere bai. Eta aho bizarrik gabe jaten. Eta *O, Jesu mi dulcissime, Tu spes mea in terra viventium*¹⁹ erraietan otoitz egiten.

Eskerrik asko, osaba kaputxinoa.

19. Latinez: *O, nire Josu gozoa, zeu zara nire itxaropena bizidunen lurraldean.*


Kronologia

- 1928** Donostiako Hernani kalean, maiatzaren 2an jaio zen. Jaiotzez hernaniarrak ziren Isidro Ansorena eta Concha Mirandaren seigarren semea da.
- 1936** Musika ikasketak Donostiako Kontserbatorioan hasi zituen, Luis Urteaga eta Beltrán Pagolarekin, beste batzuen artean.
- 1942** Altsasuko Kaputxinoen Seminarioan sartu zen, eliza ikasketak musika ikasketekin uztartuz. Ikasketak Altsasun amaitu ostean, filosofiako ikasketei ekin zien Hondarribiko Amuteko Komentuan. Nobiziatua Zangotzan (Nafarroa) egin zuen. Eliza ikasketak Iruñeko Komentuan amaitu zituen (Extramuros).
- 1953** Apaiz ordenatu zen Iruñeko San Antonio Komentuan. Bere lehen meza Donostiako Aita Kaputxinoen Elizan, urtarrilaren 3an eman zuen. Zeremoniako aitabitxia Donostiako José Antonio A. izan zen, eta Schola Cantorumeko koruak eta dantzariak parte hartu zuten.
- 1954** Iruñetik deitu zioten San Antonio Eskolania zuzentzeko. Iruñeko Kaputxinoen Elizan, San Antonioko Gazte eta Ikasle ohien elkarteak sortu zuen, geroago San Antonio Gaztedia deituko zena. Kontzertu ugari eskaini zituzten Nafarroan, bai eta bira ezberdinak, Loreto-ra (Italia) kasu.
- 1955** Gabonetako jaiotzen erronden ohiturei jarraituz, Iruñean zehar desfilea egiteko baimena lortu zuen. Hurrengo urtean, Olentzeroren irudia gehitu zitzaion jaialdiari.

- 1964** Zaragozako San Antonio de Padua de Torrero-ko Komunitatera destinatu zuten. San Antonio-ko Gazteria sortu zuen, eta gainera, parrokiako abesbatza zuzendu zuen, emakumezko ahotsekin hasiera batean, geroago koru mistoa bilakatu zuena.
- 1966** Erreneriako Kaputxinoen Komunitatera destinatu zuten. Urte horretan bertan, Andra Mari Abesbatza eta Parrokiako Gazteria saila (Gaztedi) sortu zituen. Andra Mari Abesbatzarekin emanaldi ugari eskaini zituen, eta garaiko musikagile askoren lanak estreinatu zituzten. Andra Mari abesbatzarekin 17 musika grabaziotan parte hartu izan du. Obra ezberdinak konposatu zituen, hasieran liturgia berria ospatzeko sortutako obrak, eta geroago, ekitaldi eta omenaldi ezberdinen ospakizunerako obra profanoak.
- 1967** Koruen etorkizunagatik arduratuta, Erreneriako ikastetxe eta ikastoletara hurbildu zen, eta Orereta haurren abesbatza sortzea lortu zuen. Urte batzuetako lanaren ostean, Orereta abesbatzarekin "Eguberri Abestiak" diskoa grabatu zuen, 1976an.
- 1968** Iñaki Goñi ordezkatu zuen Karnaba otxotearen zuzendaritza lanetan. Sari ezberdinak jaso zituzten San Vicente de la Barqueran, Arrasaten, Baionan eta Donostian.
- 1972** Gizonezko Karnaba otxotean abeslari eta zuzendari lanetan parte hartzeaz gain, Andra Mari Abesbatzako ahots gailenekin emakumezko Alai otxotea sortzea erabaki zuen. Urte horretan, bigarren saria lortu zuten Donostian.
- 1973** Euskal Konpositoreen musika jakitera emateko helburu nagusiarekin, MUSIKASTE jaialdia sortu zuen Errenerian. Garai guztietako 294 euskal konpositoreen 1.375 idatzizko partituretatik, 220 musika obra estreinatu ziren bere zuzendaritzapean.
- 1974** Euskal Konpositoreen Artxiboa (ERESBIL) sortu zuen, egun Musikaren Euskal Artxiboa deritzana, Euskal musika ondarea bildu, gorde eta babesteko helburua duena. Artxiboaren egitekoa hasiera batean, euskal geografiako

autoreak eta obrak bilatzea zen: Arantzazun, Iruñean, Orreagan... bai eta penintsulan zehar: Calahorran, Tarazonan, Burgo de Osman, Konpostelako Donejakuen, Salamancan, Malagan... Horrela, 1974ko irailean erroldatutako 300 konpositore zeuden, eta 2012an 1.821, 30.000 obra daudelarik gutxi gora behera.

- 1976** Denbora aurrera joan ahala, Andra Mari Abesbatzaren sail berri bat sortzea pentsatu zuen, Oinarri gazte abesbatza. Andra Mari Abesbatzarako ahots harrobi zuzena zen, bai eta musika profesionalentzako plataforma garrantzitsua.
- 1983** *Euzkadi* aldizkariak 1983ko Kulturako Sailean, José Luis Ansorena saritu zuen.
- 1990** Jorge Semprún Kulturako Ministroak Arte Ederren Merituaren zilarrezko domina eman zion Eresbili.
- 1991** Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko zenbakidun kide izendatu zuten. Urte horretan bertan, Andra Mari Abesbatzaren 25. urtemuga zela eta, urrezko eta diamantezko intsignia eman zioten bere fundatzaileari.
- 1992** Gipuzkoako Gurutze Gorriak 1992ko Gurutze Gorriko Saria eman zion Kultura Sailean.
- 1994** Jose Manuel Tifek José Luis Ansorena ordezkatu zuen Andra Mari Abesbatzaren zuzendaritzan.
- 1997** Lizarrako Hilario Olazaran A.-ren erreleboa hartu zuen, eta elkarteko kapilau moduan egindako lanagatik eta txistulari moduan egindako lanagatik, Euskal Herriko Txistularien Elkarteko Urrezko Domina jaso zuen.
- 1998** Sabino Arana Saria jaso zuen Eresbilek “Gizarte” sailean, Sabino Arana Fundazioaren eskutik.
- 1999** Andra Mari Abesbatzak Bizkaiko abesbatzekin izandako harreman estuaren ondorioz, Algortako Biotz-Alai Abesbatzaren eskutik Ohorezko Kide eta Urrezko Intsignia jaso zituen.

- 
- 2005** Musika eta musikologia mailan izandako ibilbideagatik Donostiako Orfeoia / UPV/EHU V. Saria jaso zuen.
 - 2009** Urte askotan zehar musika eta kulturaren alde egindako lanagatik Erreterria Hiriko Ohorezko Seme izendatu zuten.
 - 2011** Euskal musika tradizionala berreskuratu eta babesten duten pertsona ospetsuei emandako Zilarrezko Alboka saria (Galdames) jaso zuen.

Datos biográficos



Semetxoaren poza¹

Azaroko lore maite bat²

Cuando Isidro Ansorena comenzó su oficio txistulari no se percató de una desventaja que trae consigo. Mientras el resto de las personas danzan a su son, el tamborilero tiene que limitarse a interpretar y mirar. Aunque era buen danzarín y muy aficionado a la danza, los primeros años le fue suficiente observar cómo los jóvenes de Hernani, en el *Paseo de los Tilos* y en otros barrios, seguían el aire de sus melodías. Hasta que captó entre ellos una joven que le pareció muy especial: *Conchita* Miranda. Cuando esta comenzó a acudir a las sesiones de bailables de los domingos, Isidro notó la urgencia física de bailar también él, aunque solo podía bailar sus ojos. Acaso fue este ejercicio de gimnasia óptica el que avivó aquella mirada que todos los que le conocimos identificamos como penetrante y expresiva hasta sus últimos días.

En más de una ocasión, pidió permiso a su compañero de tareas, el rechoncho y entrañable Teodoro Erauskin y, dejando el txistu y el tamboril en un rincón, bajó hasta el corro donde estaba *Azaroko lore maite bat*. Acercándose, sintiendo el mismo ritmo

1. *La alegría del hijo pequeño*.

2. *Azaroko lore maite bat* (Una querida flor de noviembre) es un contrapás que Isidro Ansorena compuso en homenaje a Concha Miranda y que tituló así porque ella había nacido en ese mes. En el segundo tomo de su método de txistu figura la partitura. Interpreté esta obra en varias ocasiones en las clases que recibí de Isidro en el Conservatorio de San Sebastián, junto a él, que ejecutaba la segunda voz. Aunque nunca lo mencionamos entre nosotros, estas interpretaciones hacían correr unas lágrimas por las emocionadas mejillas de su autor.

que ella, la emoción le embargaba. En el *Aurresku* de la víspera de San Juan, Isidro tomó parte como *dantzari* y eligió a Conchita como compañera de cuerda. Cuando le danzó el *Contrapás de Honor*, acaso tuviera ya en mente las palabras que escribió unos años más tarde:

*Maitea, pozez agurtzen det zure etorrera,
nere bihotza pilpil aurkitzen da ikustean.
Zoriontsu eta maiteki dantzatuko det
agurrik goxo eta ederrena.
Muriska ta lau arinak
dira bihotzez zuretzat eginak.
Nere oinak nahi lukete
dantzik ederrena ongi bete.
Zuretzat, nere maite polit paregabea,
su ta gar, maitasunez, natorkizu eskeintzera³.*

Las dos familias se *conformaron*, como solía decirse en la época, rápidamente y contrajeron matrimonio el 24 de abril de 1917. La descendencia les llegaba en partidas de tres: las hermanas mayores, Ana Mari, Martina y Consuelo. Tres chicos: Iñaki, Joskin y José Luis, nacido en 1928. Y las tres hermanas menores: Mari Tere, Pepi y Amparo.

Después de tantos años, los hermanos todavía guardan un tierno recuerdo de ambos progenitores. Recuerdan la alegría que sentían cuando Isidro llegaba a casa y la frase que, inmediatamente de saludar, solía vocear todos los mediodías:

3. Sobre la melodía más conocida de lo que el público no conocedor de la materia suele llamar *Agurra* o *Aurresku*, pero que en realidad es una de las muchas que conforman el género de *Contrapás* vasco, Isidro Ansorena escribió este texto: “*Querida, saludo con alegría tu llegada y mi corazón hierve de emoción al verte. Alegre danzaré para ti la más tierna y hermosa de las reverencias. Las cabriolas y las carreras que interprete estarán ejecutadas con la mente puesta en ti. Mis pies quisieran trenzar con perfección la más hermosa de las danzas, porque vengo a ofrecértela a ti, mi amada hermosa sin par, transido de amor*”. Al cabo de los años, en las *Bodas de Plata* de la fundación de la Coral *Andra Mari*, en 1991, José Luis realizó la adaptación coral. Y, algunos años más adelante, yo mismo completé la versión para ser interpretada con acompañamiento de Banda de Txistularis. Casi toda la familia implicada en el mismo tema.

“*Jarri mahaia*⁴”, porque venía hambriento. Siendo un hombre ocupado –en la dura posguerra no era fácil mantener una familia de nueve hijos–, siempre tenía una sonrisa para quienes encontraba en casa y especialmente para su esposa. La familia constituía su más preciada riqueza. La que le ayudó a sentirse fuerte en las complicadas situaciones que le tocó vivir.


Solamente os oigo cantar

Una mujer que vivía en el segundo piso de la misma casa que los Ansorena Miranda, en la calle Hernani, Teresa Merino, les solía repetir: “*En vuestra casa sois tantos y nunca se escucha el más pequeño grito. Solamente os siento cuando hacéis música y os oigo cantar*”.

La política no centraba la atención de la familia. Isidro se sentía vascófilo y nacionalista, pero nunca se hizo notar, por una razón importante para él: creía que su puesto de director de los txistularis municipales le exigía estar al servicio de todos los donostiarra, y una actitud muy beligerante podía ser obstáculo para el trato con algunas personas y grupos. Con la guerra el ambiente se tornó muy difícil. A Isidro el Ayuntamiento le impuso un castigo⁵, como consecuencia de una denuncia, y esto tuvo consecuencias en la vida familiar. José Luis y algunos hermanos pudieron ver cómo sus padres quemaron la *ikurrina* que tenían en casa por miedo de que hubiera un registro. Asimismo, Isidro tuvo que entregar a las autoridades la escopeta de cazador que tenía. Y, si en aquella casa la lengua habitual había sido el euskara, quedó desde entonces casi reservada a las conservaciones del matrimonio entre sí, en bajo volumen además. Por ello,

4. “*Poned la mesa*”.

5. El oficio del Alcalde Antonio Pagoaga, de fecha 18 de junio de 1938 decía así: “*Tengo el gusto de poner en su conocimiento que el Ayuntamiento Pleno en sesión de 14 de junio ha acordado declarar a V. suspenso de empleo y sueldo por tres meses...*” Finalmente, ante su queja por escrito, el castigo le fue levantado y el Alcalde incluso le ofreció darle noticia de quién había puesto la denuncia. Pero se negó a saberlo, porque no deseaba alimentar en su interior ningún resentimiento contra nadie.



se produjo una brecha entre los hermanos, mientras que los mayores aprendieron con naturalidad el euskara en el trato familiar, los pequeños quedaron cojos de este conocimiento, para el cual además el ambiente escolar y callejero tampoco ayudaban nada. José Luis era de estos últimos. Aunque en la infancia no lo percibiera tanto, con el paso de los años, este vacío se tornaría herida.

